


Aretxagazeta

Garapen ekonomikoa
1.059.627,84 euro
%13,85

Lehendakaritza
1.840.715,63 euro
%24,06

Ogasuna
399.431,87 euro
%5,22



Besteak
1.032.116 euro
%13,49

Obra eta zerbitzuak
1.175.485,88 euro
%15,36

Ongizatea
422.007,53 euro
%5,52

Hirigintza
1.721.328,33 euro
%22,50

2002. urteko udal arrekontuak

Astlehenean aurkeztu ziren aurtengo udal arrekontuak, baita onartu ere. Hala ere, ez zuten udalbatza osoaren oniritzia jaso, Batasunako zinegotzien eta alkatearen aldeko botoekin egin zuten aurrera.

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Haur txikientzako
liburuen gida /8

EUSKARA
San Pedro jaietarako
esaldi lehiaketa /9

LEINTZ GATZAGA
Motozale ugari
herrian /10

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 18
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 19
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltea 943 79 21 68
Gizarte laguntzaila 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzailak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:00

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETAN
Domekak: 11:30

MENDIOLA
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

ARKARAZO
Domekak: 12:30

OHARRAK

1922. URTEAN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1943. urtean kinto izandakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 26an Matikua tabernan. Bazkarira joan nahi izanez gero, deitu maiatzaren 24a baino lehen 943 79 16 68 telefonora.

1927. URTEAN JAIOTAKOEN DIAMANTEZKO EZTEIAK OSPATZEKO IRTEERA EGINGO DUTE
Aurten 75 urte beteko dituzten herritarrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte. Hori dela eta, ekainaren 15ean, Donostiarako irteera antolatu dute. Interesatuok ekainaren bosta baino lehenago egin beharko dute izenematea. Izena emateko, honako telefonoren batera deitu behar dute: 943 79 77 72 (Eduardo Altube) edo 943 79 85 60 (Tere Barandiaran).

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA ARETXABALETAKO PLATAFORMAREN BATZARRERAKO DEIALDIA
Euskal presoak Euskal Herriratzeko plataformaren koordinazioa daraman batzordeak batzarra egingo du maiatzaren 21ean, martitzenean, udaletxe zaharrean, arratsaldeko zazpitan. Batzarrera herritar guztiak joan daitezten dei egin du plataformako batzordeak.

LORAMENDIREN AGENDA

EUSKARAREN EGUNA
Maiatzaren 25ean, Euskararen Eguna ospatuko dute herrian, eta Loramendi euskara elkarteak gertu du dagoeneko egitaraua. Besteak beste, herri baba-jana egingo dute herriko-plazan, eta parte hartu gura duenak Arlutz tabernan eros dezake bazkari horretarako txartela. Horrez gainera, egun osoan hainbat ekitaldi eta erakusketa egingo dituzte.

ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN

Iñaki Iturri preso aretxabaletarra herrian

Iñaki Iturri orain dela zortzi urte irten zen kartzelatik. 1994ko maiatzaren 21ean itzuli zen, hain zuzen ere, Aretxabaletara. Ia bost urtez kartzelan egon eta gero, ongietorri goxoa eskaini zioten. Trikitilariak, bertsolariak... Afaria egin zuten. Ekitaldi politikoa ere egin zuten plazan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lekairua"

Irrintzia (pertonarena bakarrik). *Lekairua eñ, lakaixua bota. -Lekairuka jatxi giñan San Marzialdik. -Aber zeñek itten daben lekaixo luziaua.*



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Oihan Calero
13an, 6 urte. Zorionak!
Jose Arana ikastolako lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Nerea Elortza
13an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagun partetik.



LEINTZ GATZAGA
Ander Arana
14an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ander Antxia
17an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ruben Cabero
19an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Celia Garcia
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Juanjo Eraña
22an. Zorionak eta muxu handi bat, emazte eta alabaren partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto


Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik !!!



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28


ATREBENTZIAEZPADA/ Etxe zaharrak barritu ostien gustau jatzu zela geratu dan Durana kalie?



ALFREDO MEABE
Langillie




MARI JOSE ARMENDARIZ
Langillie



BERNABE MAKAZAGA
Jubilaue



DOMI LEZETA
Langillie



IÑAKI ROMARATEZABALA
Jubilaue



ISABEL MAGALLANES
Langillie

Bai, asko gustau jat zela geratu dan. Etxe horrein azpikaldien eukiko dot den die eta oso pozik nago. Haretx arbolak, hamenguek izen arren, kalie zatarketan dauela pentsetan jat.

Bai, edarto geratu da kalie. Aretxabaletan txarren euzen etxiek izengo zien Duranakuek, atzeko partetik, batez be, eta barritu ostien edarto geratu die. Koloriek be gustau jat.

Horraxe noie bizi izetera neu be... eta bai, gustau jat zela geratu dien. Lehengo itxurie mantendu daue eta edarto geratu die. Castillan be ez daguz etxe bakotxa kolore bateaz pinttaute?

Bai, politto geratu dala uste dot etxe bakotxa kolore bateaz pinttaute. Kalien gutxien gustetan jatena arbolak die. Haretx horreik etxiei argittasune eta bistie kentzen dutzie.

Bai, ondo geratu da. Danak bardin pinttau biherrien, hola hobeto. Hasieran, baten batzuk ez euzela konforme entzun neuen, baiñe zela geratu dien ikusitue pozik daguzela uste dot.

Bai, kalie ondo geratu da etxiek barritu biherria eukien-eta. Hala eta be, etxe bakotxa kolore bateaz pinttatie, ez dakit... Danak bardin pinttau eta estilo bakarrin, nire ustez, hobeto.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK URTE BI AGERTU BARIK Ezusteko galanta izan zen asteleheneko osoko bilkuran, Iñaki Pierrugues PSE-EEko zinegotzia osoko bilkurara joan zen-eta. Urte bi udaletxera joan barik egon ostean, aurrekontuei ezezkoa ematera joan zen. Ez zen berba erdi ere atera haren ahotik, ezezkoa emateko besoa jasotzea izan zen haren lan bakarra. Herriaren alde lan egiteko era bitxia gero. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4

Aurrekontuak osoko bilkuran

Astelehenean aurkeztu zituzten aurrekontuak. Aldeko sei botorekin onartu zituzten.

ASTEAN BEHIN /5

Otala Zelai eguna

Maiatzeko hirugarren domekan Otala Zelaiako erromeria egingo dute Aozaratz auzoko zelaian.

KIROLAK /6

Pedro Guenetxea Memoriala

Domekan izango da Pedro Guenetxea Memoriala. 1. eta 2. mailako kadeteek hartuko dute parte.

ASTEKO DATUA

11

ZINEGOTZI ETA ALKATEA OSOKO BILKURAN


Aurrekontuak aurkeztu zituzten ezohiko osoko bilkuran hamai-ka zinegotzi eta alkatea egon ziren. Etorri ez zen bakarra PPko zinegotzia izan zen, eta bere desadostasuna helarazi zuen.

BESTE EKESANA

“Azken metroetan, gorputzak atzera egiteko esaten dizunean, barruko berotasunak bultzatzen zaitu aurrera egitera. Mendia- ren magia sentitu behar duzu, aurrez behin eta berriz amets eginda izan behar duzu, tontorraren beste aldean dagoen misterioa ikustea, fisikoki zeure burua neurtzea, arriskuaren jokoa onartzea gura izan behar duzu; hori bai, erokerian erori gabe. Izan ere bizi iraun nahiak agintzen du mendi gainean, eta oso samurra eta normala da atzera botatzeko aitzakia topatzea: atzera egin duen laguna, ez ohiko itxura duen laino bat hurreratzea, sentipen txarra gorputzean... Barruko sentipen hori zenbat eta luzeagoa izan helburuak gero eta garrantzia gutxiago dauka.

ALBERTO IÑURRATEGI
'El Pais' astekaria/02-04-28

HERRITARREN BERBAK/ Felis Beltran de Heredia



Abertzaleak herrian ere ezin konpondu

Herrian 6.000 biztanle eta 13 udal ordezkari izanda ez bada akordiorik lortzen, nola konponduko dugu Euskal Herria?

Hamahiru horietatik bierkin ezin da kontatu, eurak dira, gainera, kanpoan geratu gura izan dutenak. Izan ere, PPko

zinegotziak ez du inoiz ezer egingo herri honen alde; baretik "bera" sentitzen ez duelako eta bestetik udaleko informazioa gazteleraz jasotzeak gehiago arduratzen duelako informazioak berak baino. PSE-EEko zinegotziak, berriz, botoa eman zien 425 herritarrei iruzur egin die, hiru urtean bi aldiz agertu baita udaletxean: udalbatza eratu zenean bere buruari botoa emateko eta astelehenean 2002. urteko aurrekontuei ezezkoa emateko. Bere garaian pailazoa zela esan genuen eta argi dago ez dela aldatu.

Domekako egunkari batean hipokresiatik harantzago doan oharra irakurri nuen. Hogei urtetik gora daramatzagu udalbatzan adostu bako aurrekontuak

onartzen. Orain arte, agintean egon den alderdiak ezarritako aurrekontuak onartu izan dira gainontzeko taldeek eskatutako aldaketei inongo kasurik egin barik. Orain, oster, agintean egon ziren haiek haserretu egin dira adostasuna lortu barik ere, denen erruz, aurkeztu egin dire-

lako aurrekontuak. EAJ/EA, hauteskundeetan jasotako ezustekoaren aurrean, politika egiten saiatu da gure herri- an (euren gaintetik daudenen aginduz pentsatu gura dut). EAJ/EAREN haserretu aldi horrek abertzaleen artean ezta-

baidak sortu ditu behin eta berriz udalean. Ni neu ere egon nintzen lau urtean udalean eta zerbait ikasi nuen: EA eta EAJn alderdia eta berak esaten duena direla lehenengo eta ez herriaren alde lan egitea, nahiz eta beti egon independente izena daraman zinegotziren bat.

Arazo politikoak albo batera utzi eta herriaren alde lan egitea hain zaila da? Edo eman ditzaketen boto kopuruarekin neurtzen dira proiektuak?

“Hogei urtetik gora egon dira EAJ eta EA agintean, eta legealdi guztietan eurek ezarri dituzte aurrekontuak”



M. J. Aretxaga

Ongi etorri, jaiak

Udaberria, loreak, eguraldi ona, jaiak... Horiek guztiak batzen dira maiatzetik aurrera gurean, eta hori ez da seinale txarra. Datorren domekan, Otxalari Zelai eguna ospatuko dugu. Norbaitek galdetuko zuen honezkero Euzkararen eguna aurten ez ote dugun ospatu behar. Lasai, ez da ez antolatuko barik geldituko-eta, baina bihar zortzira atzeratu da. Arrazoia ez dakit garbi, agian bi egun jai giroan pasatzeko lartxo direlako. Beharbada hobeto, horrela biharamun txikiagoarekin jaikiko naiz erromeriara joateko. Lehenago ala berandago, baina ospatu dadila.

Jaiekin jarraituz, domekan erromeria giroa izango da nagusi Otxalari Zelain. Ez dira faltako Gorriti eta bere animaliak, dantzariak, trikitilariak, bazkaria eta entsalada lehiaketa. Beraz, bada-kizue, zapatuan formal etxeratu eta domekan bazkaria hartu eta Otxalari Zelaira. Nik behintzat han izatea espero dut.

Beste gauzatxo bat ere badaukat kontatzeko. **Kepa Akixo** Miarrizten bizi den aretxabaletarrak eskultura erakusketa jarriko du gaurtik aurrera herrian. Gauza bitxiak izango ditu erakusgai, hori segurua. Eta honekin lotuta bitxikeria bat: Kepa Akixo *El Cordobes* toreroaren koinatua ei da. Hori ez zenekiten eee?

AURREKONTUAK/ Aurrekontuak Batasunaren oniritzia jaso zuen; EAJ/EAk eta PSE-EEk ezezkoa eman zioten

Zazpi milioi eta erdi eurotik gorako aurrekontua onartu zuen Batasunak

MIRARI ALTUBE

Zazpi milioi eta seiehun euro inguruko udal aurrekontua aurkeztu zuten astelehenean osoko bilkuran. Batasuneko bost zinegotziek eta alkateak aldeko botoa eman zioten, EAJ/EAKoek eta PSE-EEkoek, ordea, ezezkoa. PPko zinegotzia, bestalde, ez zen agertu.

Astelehenean aurkeztu zituzten 2002ko aurrekontuak. Adostasun falta izan da nagusi, hasiera-hasieratik, udalbatza osatzen duten taldeen artean, eta Batasuneko bost zinegotzien eta alkatearen oniritziakin egin du aurrera; EAJ/EAKo bostek eta PSE-EEko bakarrak ezezkoa eman zioten. PPkoa, berriz, ez zen agertu

ADOSTASUN FALTA ALDERDIEN ARTEAN 7.650.975 euroko aurrekontua onartu zuten astelehenean. Horri, Urats-Gain zaharren egoitzako gastua (544.532€) eta Bihargintza SArena (118.587 €) gehitu behar zaizkio. Hortaz, denera, zortzi milioi eurotik gorako aurrekontua daukagu Aretxabaletan. Inbertsioei dagokienez, kultura aretoa aipatu behar da; izan ere, horrek eragin ditu desadostasunak Batasunaren eta EAJ/EAREN artean. Milioi bat euroko gastua izango du; baina ez da samurra izango aurrera eroate, gehiengo absolutua behar da-eta kreditua eskatzeko, eta EAJ/EAK ez dauka onartzeko asmorik.

Anjel Bergaretxe alkateak aurrekontua aurkeztu ondoren, EAJ/EA alderdiko Pablo Txintxurreta zinegotziak aurrekontuekiko desadostasunaren arrazoiak eman zituen. Aurrekontu eztabaidatuago eta zorrotzago baten aldekoak zirela adierazi zuen, herritarren beharrei hobeto erantzuneko baten aldekoak. Gaineratu zuen aurrekontua egiterakoan irizpide falta egon dela eta azken urteotan gastuek asko egin dutela gora eta inbertsioek, berriz, gutxi. Eta Batasunari "bere" aurrekontua aurkeztu izana leporatu zion.



Kuartela dagoen lekuan egin gura duten kultura aretoak eragin ditu Batasuna eta EAJ/EA alderdien arteko desadostasunak.

Alkateak onartu zuen ez dela aurrekontuak aurkezteko une egokiena, kultura aretoak eztabaida handia piztu duelako bi alderdien artean. Hala ere, erantzun zuen aurrekontuak urtean barrena egiten direla batzorde-

tan, eta ez dela azken orduko kontua. Gastuaren igoera ere aztertzea egin beharko litzatekeela gaineratu zuen, inork ez duelako dirurik poltsikoratu. Inaki Pierregues PSE-EEko zinegotziak, bestalde, ez zuen ezer komenta-

tu. Maria Rosario Arrue PPko zinegotzia ez zen agertu, baina idatzi baten bitartez desadostasuna adierazi zuen: aurrekontuak euskaraz aurkeztea eta partida independentistak egotea aipatu zituen desadostasunaren arrazoitzat.

2002rako aurrekontua

Udala:	7.650.975 €
Urats-Gain zaharren egoitza:	544.532 €
Udal Euskaltegia:	75.444 €
Aretxabaletako Bihargintza SA:	118.587 €
UDAL AURREKONTU OSOA:	8.020.619 €

Aurrekontua, batzordeka

Auzoak	77.449 €
Zerbitzuak	1.175.486 €
Lehendakaritza	1.840.716 €
Ekonomia garapena	1.059.628 €
Kultura	221.766 €
Kirolak	229.001 €
Hirigintza	1.721.328 €
Hezkuntza	79.105 €
Gizarte Ongizatea	422.007 €
Ogasuna	399.432 €
Euskara	241.793 €

Inbertsio aipagarrienak

Kultura aretoa	1.000.000 €
Lursailen erosketa	661.113 €
Industria pabilioia	390.660 €
Sanamenduak	242.000 €
Urbanizazio lanak	138.233 €
Urkulura bidegorria	66.111 €
Lokalak egokitzea	48.081 €
Durana 13ko etxea	12.020 €
Bainetxe bidea	11.320 €
Beste batzuk	247.845 €
GUZTIRA	2.817.383 €



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67



Hirusta Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Lubia oinetakoak



zapatak, zapatilak,
gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

JAIAK/ Eguraldi txarra eginez gero, Iturrigorri frontoian ospatuko dute urteroko erromeria

Otala Zelaiko erromeria egingo dute domekan

MIRARI ALTUBE

Udaberriak festak ekartzen ditu Euskal Herriko herrietara. Aretxabaletan, Otala Zelaiko erromeria da maiatzean egiten den jai zaharrena. Giro polita izango da Aozaratza auzoko zelaian, eguraldiak laguntzen badu, behintzat. Bestela, Iturrigorri izango da festa.

Berritasun gutxi izango ditu Otala Zelai Eguneko egitarauak. Udako Kultura Sailak antolatuta, ohiko ekintzak izango dira protagonista domekan eta eguraldia lagun izanez gero, giro polita sortuko da Otala Zelaiko zelaian.

ENTZALADA ETA HERRI BAZKARIA

Herriko txistulariek Otala Zelaira igotzeko gonbidapena egingo diete herritarrei 10:00etan. Behin Aozaratza auzoko zelaira igota, gaztelu puzgarriak salto egiteko eta animaliekin jokoak izango dira eguerdira bitartean. Pottokak, txerrikumeak... Denak gertu umeekin jolas egiteko.

Eguerdi partean, Entsalada Txapelketa hasiko da. Kultura Sailak oinarritzko osagaiak banatuko dizkie parte hartzaileei: letxuga, tomatea, tipula, gatza, olioa eta ozipina; eta gainerako osagaiak norberak jarri beharko ditu. Onena prestatzen dutenen artean hiru sari banatuko dituzte. 14:00etan, herri bazkaria egingo dute. Antolatzailiek mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte eta bazkaria norberak eraman behar-




Gustura egingo dute jolas umeekin animaliekin domeka goizean.

ko du. Hori bai, txapelketarako prestatutako entsaladak banatuko dituzte, denen artean jateko. Bazkalostean, herri kirolak eta herri jolasak egingo dira Berbarok antolatuta: tirolina, rokdromoa, lantegiak... Adin guztietara egokitutako jolasak.

18:00etan, Loramendi dantza taldeak dantza saioa eskainiko du eta gero, 20:00ak arte, musika egingo da dantzan egiteko.

Eguraldiak zeresan handia izango du domekan: txarra eginez gero, Iturrigorri frontoian egingo dituzte ekitaldi guztiak.

TXUTXUMUTXUA



Kepa Akixoren eskulturak ikusgai

Kepa Akixo *Zigor* joan den aspaldian Miarritzen bizi den eskultore, margolari eta poeta aretxabaletarra da. Nahiz eta hiru gauza egin, eskulturak egitea Kepa Akixo *Zigor*-en lanbidea eta egurrezko hainbat irudi ekarri ditu aretxabaletarrok ikus eta disfruta ditzagun. Gaur, egubakoitza, hasi eta hilabete eta erdi zabalik egongo da erakusketa udaletxeko ganbaran. Erakusketaren inaugurazio ofiziala, bestalde, gaur egingo dute, 19:00etan, udaletxeko ganbaran bertan. /M.A.

LABUR

EPEH Aretxabaletako Plataforma indartzeko deialdia egin du plataformako batzordeak

Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako Plataforma dua urte bi sortu zuten. Herriko kultura eta kirol taldeek, alderdi politikoez... 35 taldek eman zioten babesa eta laguntza, eta preso-egoera latza salatzeko hainbat ekintza antolatu zituen. Poliki-poliki indarra galduz joan da plataforma; preso-egoera, ordea, ez da aldatu. Eta hori ikusita, berriro indartu eta abian jarri gura dute. Horretarako batzarra egingo dute herriko talde guztiekin martitzenean, hilak 21, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

Matikua jatetsxea

Azatz auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

MartiW
E-R-I-K-O-J-U-D-E-N-I-A

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

LEIBAR
arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

ARTANO akaitegia

Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

TXIRRINDULARITZA

Pedro Guenetxea Memoriala izango dute oraingo domekan kadeteek

Lehenengo eta bigarren urteko kadeteek hartuko dute parte, 16:00etatik aurrera

MIRARI ALTUBE

UDA kirol elkarteko Txirrindularitza Sailak antolatuta, Pedro Guenetxea Memoriala jokatu da domekan Aretxabaletan. Lehenengo eta bigarren mailako kadeteek hartuko dute parte, eta 57 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. 16:00etan hasiko da proba.

Urtero antolatzen du UDAko Txirrindularitza Sailak Pedro Guenetxea Memoriala txirrindulari lasterketa. Aurtengoan ere erronka polita izango dute aurrez aurre lehenengo eta bigarren urteko kadeteek.

ARRAKASTA HANDIKO LASTERKETA

Aretxabaletako Durana kalean emango diote hasiera txirrindularitza lasterketari 15 eta 16 urteko gaztetxoek domekan. 16:00etan irtengo dira eta ordu eta erdi geroago, 17:30ak inguruan, leku berean izango dute helmuga puntua. 57 kilometroko ibilbidea izango dute aurrez aurre kadeteek. Bai Arrasatera bai Eskoriatzara hainbat joan-etorri egin beharko dituzte txirrindulariek, eta Epeletik



ARTXIBOA

Iaz, 133 txirrindulari batu ziren Pedro Guenetxea Memoriala lasterketan.

gora dagoen Sara jatetxe paretik pasatzen diren lehenengoei Mendiko saria lortzeko puntuak emango dizkiete antolatzaileek.

Arrakasta handia izan ohi duen lasterketa da Pedro Guenetxea Memoriala. Iaz, 133 txirrin-

dulari batu ziren eta aurten ere antzera ibiltzea espero dute UDA kirol elkarteko Txirrindularitza Sailekoek. Tartean, aretxabalearrak ere egongo dira: J.M.A. Dorletako Ama taldeko Jon Lete eta Jon Rodríguez, hain justu ere.

ARETO FUTBOLA

Datorren zapatuan final aurrekoak jokatu dira; finalaren eguna oraindik ez da erabaki

Datorren zapatuan, hilak 18, jokatu dira Arlutz osteko kantxan areto futboleko final aurrekoak. Lau talde arituko dira norgehiagokan 16:00etan Peña Hugo eta Kemen, eta 17:00etan Putas de Satan eta MCM. Lau hauen artean erabakiko da zeintzuk jokatuko dute finala, eguna, ostera, oraindik ez da erabaki hurrengo zapatuan maiatzak 25, euskararen eguna baita.

PILOTA

Debagoieneko Alebilen Pilota Txapelketako finalaurrekoak bihar, zapatua, jokatu dira

Aretxabaletan jokatzeko ari den Debagoieneko Alebilen Pilota Txapelketa aurrera doa. Bihar, zapatua, finalaurrekoak jokatuko dituzte, eta, tartean, Aretxabaletako bi bikote ibiliko dira norgehiagokan: batetik, Aitor Urribarren eta Joseba Akizu eta bestetik, Iba Agirreurreta eta Beñat Etxabe. Gainerako bikoteak Eskoriatzatik, Arrasatetik, Elgetatik eta Antzuolatik etorriko dira.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Lagun Onak-UDA

Preferentea.

Zapatua. 16:30. Azkoitia.

UDA-Urnieta

Bigarren mailako erregionala.

Domeka. 17:00. Ibarra.

PILOTA

Herri Arteko Txapelketa

Aretxabaleta-Azkoitia

Egubakoitza. 19:00.

Iturrigorri frontoia.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Zarautz 2

Preferentea.

UDA 1 Aurrera Vitoria 3

Gazteen Euskal Liga.

Urnieta 3 UDA 1

Bigarren mailako erregionala.

UDA 4 Aurrera Ondarroa 0

Bigarren mailako gazteak.

UDA 6 Aitzgorri 1

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 4 Hondarribia 3

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Herri Arteko Pilota Txapelketa

Azkoitia 22 Aretxabaleta 4

Kadeteak.


Azkoitia 19 Aretxabaleta 22

Gazteak.

Azkoitia 18 Aretxabaleta 22

Seniorrak.

OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

■IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista

Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ANGEL BENGUA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa

Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

■FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia

Basabe indusrialdea, Pab D z/g

Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista

Osteopatia kraneala: estrukturala eta

funtzionala, lotura muskularrak

Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

■ZAINDUZ OSASUN ETA

FITNESS ZENTRUA

Kirol eta osasun zerbitzuak:

banakako fitness programak, masajeak...

Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

■EKIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.

Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

■PSIKOPEDAGOGOAK:

■LEBER KABINETE

PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa eta tratamendua

Basabe indusrialdea, C3-3.

Tel: 943 79 56 98

■PARAFARMAZIAK:

■FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria

Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

■YOGA:

■SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia

Lezama komertzial zentrua

eta Santa Kurtz, 24. Tel: 616 965 795

ESKORIATZA

■FARMAZIA:

■BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE

PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia,

formula magistralak

Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

■DENTISTAK:

■ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika

Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.

Tel: 943 71 47 36

■ORTODONTZIAK:

■AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia

Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 24a / 586. zenbakia

IV. Elkartasun Eguna

Bihar, zapatua,
IV. Elkartasun Eguneko azoka
egingo dute Arrasaten



ORAIN ETA HEMEN: ZABALETAKO ZUBIA KENDU EGINGO DUTE/8 • KIROLA: CORCUERA XEREZEN/12

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- HONORIO IZQUIERDO. Mendia Jauregia. Erdiko kale, 22 ☎ 943 79 72 16
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kale, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kale 54, behea eskuma ☎ 943 79 97 46


PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

KALEINKESTA/ Ze hobetuko zeunke Erguin auzuen? Ze biher nagusi ikusten dozu?




JON ARANGUREN
Ikasle




FATIMA ROBLEDO
Langillie



ARATZ BRUÑA
Ikasle



MAITE ZABALA
Langillie



JOXE ZABALA
Langillie



TERESA PALACIOS
Erretiratue

Nahiko ondo dago, baiñe iguel denda gehixago falta die. Oin dala gutxi, Mondragueko Udalak kontenedoriek be jarri zittuen, eta bueno, holako gauzak jarritte, ondo dago auzue.

Neu Erguin goi-goixen bizi naz, eta hara igoteko eskailera batzuk jartie ondo legoke. Bestela, aparkalekuek falta die, eta dendetakuek karga eta deskarga egitteko leku faltan gagoz.

Aterpie n jolasteko leku gehixago egin beharko leukie. Baitte ziburuek be. Goko aldien denda gehixago egotie be ondo legoke. Eta, posible izengo balitz, aterpeko frontoie be.

Aparkalekuek falta die. Eta dendak be falta die, baiñe ez dakit hamen nahikue salduko dauen. Bestela, auzue ondo dago, leku lasaxe da eta gaur egun hori oso gauza haundixe da.

Erguingo kale batzuek ez daukie irteerarik, eta kale horreittan irteerak jarri ezkerro, auzuen trafiko arazo gutxiago eukiko geuke. Aparkalekuena be betiko arazue da, falta diela.

Erguñera igoteko eskaillerak jarri biherko leukie. Garaje onak egin biherko leukie eta, jeneralien, auzue barritu egin biherko leukie. Oin, behintzet, kontenedoriek jarri duskue.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK NATURARI BUELTATU BERARENA DENA Otaloratik Muxibarko biribilunera joateko zebraidea lekuz aldatu egin zuten. Eta lehenengo zebraidearen parean, errepide biak banatzen dituen belarrezko hesian zegoen hutsuneak bere horretan jarraitzen du. Ea, bada, Arrasateko lorategiak hain ondo zaintzen dituzten langileek hutsune zatar hori landarez estaltzen duten.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /13

KULTURA /15

Udaltzain gehiago

Hautatze probak egin eta gero, ekainaren erdialdetik aurrera udaltzain gehiago egongo dira.

Entrenatzaile aldaketa

Datorren denboraldian Josu Zubia izango da Mondra futbol taldeko entrenatzailea.

Antzerki estreinaldia

Bihar, Amaia Udal Antzokian, Sobradun antzerki taldeak *Hablar es de bobos* lana estreinatuko du.

ASTEKODATUA

13

GKE-K JARRIKO DITUZTE POSTUAK BIHAR

Bihar, zapatua, gobernu kanpoko hamahiru erakunde salmenta postuak jarriko dituzte Elkartasun Egunean. Horietako hamabi GKEen postuak dira, eta azkena, antolatzaileena.

BESTEKEESANA

“Zapatuko prestakuntzak ondo doaz, laz, hamargarren urteurrena ospatzeko bi eguneko egitaraua antolatu genuen. Eta aurtten, berriro ere, ia urteroko festa txikia antolatu dugu. Zapatuan, 12:30ak aldera, eskolako ikasleekin kalera irtengo gara, eta kalea eta gu geu ere ondo girotu ondoren, bazkaltzera joango gara. Ondoren, herriko plazan, Etxabe anaiekin erromeria izango dugu, iluntzera arte (...) Arrasateko Trikitixa Eskolak oso osasun ona dauka. Aurtengo ikasturte hasieran ikasle kopuruak gorantz egin du eta kurtsoan zehar ere jende berria batu gura izan zaigu, baina ez da posible izan. Horregatik, zerrenda bat egin dugu, eta plazak egon ahala deituko diegu”

MAIXA LIZARRIBAR
ARRASATE IRRATIA/02-05-22

HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



Euskal Herritik Kaliforniara

Anaaaaaaaaaaaaaa!!!! Zer moduz Frisco-n? Ni, hamentxe, proiektu bat bukaketan. Liburu bat diseinetan eta enmaketetan nabil: *Arrasateko emakumeak XX.mendean*. Liburua zertan datzan eta zergaitik atarako dan kontentau gure nutzun, eta pentsetan dot modurik onena iguel liburu hasieran fango dan *Bi hitz* edo *Sarrera* hori zeuri idaztia izengo dala. Tori, ba:

“Bizi izan gara, lan egin dugu, etorkizuna sortu dugu eta historian ikusezin bilakatu gaituzte. Mondrautarro *Cerrajer*os eta *Cerrajer*as deitu bihar gaituzte. Gu gabe inoiz ez zen industria hori sortua izango eta garatuko, ezta herri honetako ezer ere.

Eskuarteaz duzun liburu honek emakumeak ditu protagonista. Guk liburu hau merezi dugu eta emakumeen memoria kolektiboak honelako ekarpenak behar ditu. Herritar guztiok gure iraganera gertura-

tzeko aukera izango dugu, baina kasu honetan emakumeon eskutik.

Baserritarrek, lanegiko langileak, emaginak, etorkinak, mojak, kirolariak, musikariak, ikasleak, etxeko langileak, feministak... eurek hitz egingo dute eta historia desberdin bat azalduko digute”.

Nik neuk, liburue irakurri ostien, hemen jasan dan sufrimentue dauket goguen: gerrie, gerra ostie, diktadurie,... Kristorenak eta bat izen die gure senitartekuek pasautu-

kuek: hilketak, bortxaketak, deportaziñuek... Eta tristie bada be, zauriak ondiokan itxi barik dagoz. Sarraski horre in guztien errudunek iñoiz ez die zigortuek izen eta, hori gutxi balitz, bizirik jarraitetan dauenak *demokrazia* honetan agintzen ikusi biher dittugu.

Sufridu dauenak eta sufriduten dauenak justizia izen arte zaurixek ez die itxiko. Agur, Ana. To be continued.

“Sufridu dauenak eta sufriduten dauenak justizia izen arte, zaurixek ez die itxiko”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 24**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 25**
Español. Araba etorb. 17..... 943 79 18 65
- DOMEKA, 26**
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 27**
Azkoaga. Iturriotz..... 943 79 15 15
- MARTITZENA, 28**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 ... 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 29**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUENA, 30**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan ... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | <ul style="list-style-type: none"> San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |
|---|---|

OHARRAK

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, maiatzaren 30ean, 21:30ean, Amaia Udal Antzokian, Fernando Leon de Aranoaren *Caminantes* dokumentala emango dute.

HABLARES DE BOBOS
Zapatuan, 22:30ean, Amaia Udal Antzokian, Sobradun antzerki taldeak *Hablar es de Bobos* antzezlan estreinatuko du.

JON AGIRREREN ALDE
Etzirako, domekarako, ezker abertzaleak Aramaio-ko Jon Agirre presoaren aldeko mendi martxa antolatu du Murura. Aretxabaletatik, Aramaio-tik eta Arrasatetik irtengo dira. Arrasatekoak 09:00etan elkartuko dira, Arbolapetan.

TRIKITILARIEN JAIJA
Bihar, herriko trikitilarietako urteroko jaija ospatuko dute. 12:30ean, kalejira egingo dute. 14:30ean, Uarkapen bazkaria izango dute, eta 18:00etatik aurrera, herriko plazan, umeendako jolasak eta Etxabe anaien erromeria izango da.

LOURDESERA ERROMESALDIA
Osasun Pastoraltzak bihar, 06:00etan, Lourdesera joateko autobusa antolatu du. Itzulera azken elizkizunaren ostean izango da.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltsa zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

AEDren kanpaina, mila bazkide lortzeko


AED elkarteak prentsaurrekoak egin zuen bazkide kanpaina aurkezteko. Orain dela hamar urte, AED elkarteak 620 bazkide zituen, eta AEDko arduradunek euskararen normalizazioan bide gehiago urratu ahal izateko, mila bazkide lortzeko kanpaina antolatu zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Kertenkerixia”

Kirtenaren ekintza.
—Kadrilla orrek eztauka kertenkerixia ta jaleua besteik.



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jesus Mari Barrena, Nanga Parbat-era

Jesus Mari Barrena arrasatearra Nanga Parbat mendira joango dela eta, harekin elkarrizketa egingo dugu datorren eguenean, hilaren 30ean, goizeko 10:30ak inguruan. Espedizioaren nondik norakoak kontatuko dizkigu mendizaleak. Bestalde, eguaztenean, 10:30ean, Edu Abasolo izango dugu lagun. *Gran Hermano* saioan egiten du lan kameralari moduan, eta kristalaren atzetik zer ikusten duen kontatuko digu aretxabaletarrak.

Xanti Iparragirre bertsolariarekin

Xanti Iparragirre bertsolaria elkarrizketatu dugu aste honetan. Eskoriatzan bizi izan zen; gaur egun, berriz, Iparraldean bizi da, Larren soron. Almen Bertso Eskolaren sortzaileetarikoa bat izan zen, eta bere biziaren azala liburu bere idatzi du. Patxi Goikolea bertsozalea ere lagun izan genuen elkarrizketa horretan. Horrez gain, etxebizitzaren gaineko mahai-ingurua ere entzun ahal izango duzue zapatuan eta domekan.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 19	6 °C
MAXIMOA Eguaztena, 15	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	14 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	32 °C	8 °C	— l/m²
Eguena, 16	31 °C	11 °C	1,8 l/m²
Egubakoitza, 17	23 °C	14 °C	4,9 l/m²
Zapatua, 18	17 °C	10 °C	— l/m²
Domeka, 19	25 °C	6 °C	— l/m²
Astelehena, 20	31 °C	8 °C	— l/m²
Martitzena, 7	24 °C	7 °C	7,3 l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**
21:00 MIR
- MARTITZENA**
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen
- EGUENA**
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Gailurretik/Mikelenea
- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Gai guztiak onartu zituen udalbatzarrak

Joan den egunean, osoko bilkura berezia egin zuen udalbatzarrak. Hiru gai zituzten lantzeko, bi hirigintzakoak eta bat aurrekontuekin lotutakoa. Hirurak onartu zituzten. Horrela, Lëgargainen etxebizitzak egiteko lursail bat saltzeko proposamena onartu zuten. Bestetik, Cerrajera inguruan bulegoendako eraikina egiteko lursaila erosteko aukera ere onartu zuten. Eta bukatzeko, aurrekontua betetzeko arauak aldatzea ere onartu zuten.

Fagor saritu dute

Fagor Elektratresnak lantegiari saria eman diote Madrilen. Ingurumena zaintzeko Eco-Diseño produktuak egiteagatik eman diote saria. Espainiako Estatuko hainbat enpresarekin lehian izan da Fagor sari hori lortzeko. Eta datozen hilabeteotan, Europako lehiaketan Espainiako Estatua ordezkatzeko du Fagorrek. Pablo Mongelos izan zen Arrasateko lantegiaren ordezkaria eta Espainiako Felipe printzearen eskutik jaso zuen saria.

Esan beharra dago, baita ere, Europako lehiaketa horretan MCCko Eroski enpresak ere hartuko duela parte.

Sonografo gehiago

Goizalde gozotegian sonografoa ipini behar dute. Halaxe erabaki du oraingo asteko Gobernu Batzordeak. Izan ere, emandako informazioaren arabera, Iturriotz kaleko zenbait bizilagun kexatu egin dira gozotegi horrek eragiten duen zaratagatik.

Bestalde, Etxoste tabernan ere eduki dute ipinita sonografoa. Orain, emaitzak batu dituzte, eta haien arabera, Etxostek ez du legea betetzen ez ordutegiarekin ezta zarata mailarekin ere. Hortaz, espediente zigortzailea irekiko diote Etxosteri.



Atzegi Elkartearen Eguna

Arrasaten ospatu du aurten Atzegik bere eguna. Zapatuan izan ziren ekitaldiak. Horrela, Gureak lantegia ikusi eta gero, batzarra izan zuten udaletxean, eta bazkaria ondoren. Atzegiren asmoa izan da ibarreko elkarteko kide guztiek elkar ezagutzea eta, ondo pasatuz, lankidetzatza bultzatzea.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Propaganda gehiago?

Behin baino gehiagotan esan ohi dute aurtengoa Arrasaten gaur egun dagoen gaztetxearen azkenean urtea izango dela. Egia esatearren, askotan esan dute hori, eta horrela igaro ditu dagoeneko bete dituen hamaika urte.


Gaztetxe horretan era askotako ekintza mordo egin izan dira. Hala ere, Arrasateko herriak izan

duen tradizioarengatik, gazteriak musikarekiko duen zaletasun sutsuarengatik, edo dena delakoarengatik, kontzertuak dira gehien antolatu diren ekintzak. Horren harira, eta gaztetxe-ko historiari gainbegiratu egiteko asmoz, erakusketa bitxia antolatu dute: 1991. urtetik -gaztetxe horren sorreratik- milurtekoa aldatu arte egin diren ekin-

tza guztiak urtez urte idatzita jarri eta kontzertuetako kartel eta sarrera mordoxka ipini dituzte.

Kontzertuen 170 kartel daude, baita sarrerak ere; gehienak zuri-beltzekoak, sasoi hartan ohiko zen bezala. Erakusketa interesgarria da, sasoi haiek bizi izan genituenok hartuko dugun nostalgia puntuarengatik. Baita ere gaztetxeok eta beste edozeinek oso gailu gutxirekin zenbat gauza egin daitezkeen ikus dezaten.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

AGUR MUSAKOLAKO METALEZKO ZUBIARI


Arrasateko Udalak aspalditik daukan egitasmoaren lehen urratsa oraingo astean egin dute. Udalak Zabaletako zubia kendu eta pasabide erosoago bat egitea aspaldi zuen helburu, eta lehenengo egin dutena metalezko zubia kentzea izan da. Guztira, 770 mila euro inguru gastatuko dituzte pasabide berria

egiteko. Foru Aldundiak 343 mila euro inguru jarriko ditu eta gainerakoa Arrasateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak jarriko dute. Zubiaz gain, bestelako lanak ere egin behar dituzte inguru horretan: oinezkoendako pasabidea hobetu eta Deba ibaia- ren ubidea egokitu, besteak beste. /XABIER URZELAI.

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ELKARRIZKETA

JESUS MORENO/FUTBOL JOKALARI ETA ENTRENATZAILE OHIA

“Futbolagatik, prest nengoen neukan guztia emateko; izan ere, hori egiten nuen gusturen”

XABIER URZELAI

Jesus Moreno Mondragoen jaio zen, Iturriotzen, orain dela 75 urte. Urte guztiak ez ditu Arrasaten egin, baina biziki maite du herria. Jesusen esanetan, liburu bat egiteko moduko kontuak dauzka. Jesusekin berba egin besterik ez dago liburu ederra izango zela konturatzeko. Jesusek asko maite du futbola, eta aurten, AUKEA saria jasoko du, herriko kirolaren alde egin duen lanagatik.

Bazen ordua sari bat jasotzeko, ala?

Bai, nik baietz esango nuke. Bihotzez esan dezaket eta ziur nago, gainera, herriko futbolagatik nik baino lan handiagoa egin duenik ez dagoela. Dirua ere galdu izan dut nik hemengo futbolaren alde, diru asko.

Eta hori?

Orduan, gauzak ez ziren gaur egungoak modukoak. Ez zegoen futboleko egiteko leku askorik eta Zigorrolan futbol zelai bat egin nuen. Zutoinak soldatu, Iso-carroarekin eramanez, guztia egokitu... Eta guztia ere, neure poltsikotik, ez zegoen-eta besterik. Mutikoei ere zenbat ogitarteko prestatu dizkiedan... batek daki.

Jesus Morenoren dako zer izan da futbola?

Niretako, dena. Futbolagatik, neukan guztia ematen nuen nik. Hori zen gusturen egiten nuena, eta horretan pasatzen nuen denbora guztia. Partiduak ikustera joaten ginenean, amaren atzean pasatzen nuen egun osoa, trenarendako diru eske.

Eta egungo futbola zer bilakatu da?

Gaur egungo futbola penagarria da. Diru mordera gastatzen dute taldeek, eta hori, lehenago edo geroago, amaitu egingo da. Nonbaitetik apurtu egin beharko da hori, eta orduan izango dira izan beharrekoak.

Zein izan da futbolari moduan bizi izan duzun unerik goxoen?

Hirugarren mailan izan ginenekoa. Orduan, Bizkai aldeko talde askoren kontra jokatzeko gurekin partiduetara joateko zozketak egiten zituzten, jarraitzaile asko genuen-eta. Kalagorri (Calahorra), esaterako, txarangaekin egin ziguten ongi torria. Partidua amaitzean, ordea, kolpeka irten ginen. (Barreak)

Eta txarrena?

Garai baten, zorabioak izan nituen, eta une txarrak izan ziren. Bestalde, behin, epaile bati sekulako jipioa eman nion, partidua



XABIER URZELAI

“Futbol zelaia Zigorrolan egiten dutenean egingo du gora Mondra futbol taldeak”

lapurtzeagatik, eta 49 partiduko zigorra jarri zidaten. Ordura arte izandako jarrera onagatik, ordea, guztia barkatu zidaten. Sekula ez nuen horrelakorik egin, baina epaile hark ederrak hartu zituen.

Zenbat urte egin dituzu entrenatzaile?

Aloñan hiru urte eman nituen,

“Entrenatzaile lana gaitza da: hogeita bi jokalaririk dituzu, baina hamaikak jokatzeko dute”

eta lan polita egin nuen han. Arrasaten zenbat urte egin ditudan entrenatzaile ez dut gogoratu ere egiten, horrenbeste dira... Jose Luis Ubago orduko presidentek ez zidan kanpora joaten uzten. Mondran geratzeko esaten zidan, baina ni ordurako nekatuta nengoen. Oporrak emateko esaten

“Ni entrenatzaile gogorra nintzen. Gogorregia, akaso, baina batzuk zuzendu nituen”

nion, baina hark ezetz, mesedez kanpora ez joateko. Aloñan hiru urte egin nituen eta gainerako guztiak Mondran egin ditut.

Zelako entrenatzaile zinen?

Gogorra. Gogorregia, akaso. Nirekin ez zegoen lelokeriarik. Entrenamendu gogorrak egiten

genituen, eta nigana ez zen inor etortzen zigorroa ahoan. Orduko hartan parrandazale ederrak ziren batzuk, behintzat, zuzendu nituen. Gaur egun, parranda zale haiek ezkondu daude, eta haiekin elkartzen naizenean, begirunez agurtzen naute. Horrek poztu egiten nau.

Zelan ikusten duzu gaur egungo Mondra?

Gaizki. Azkeneko urteotan herriko taldeak behera egin du. Futbol zelaia Atxabalpen egin zutenetik hona, ez da gauza onik izan. Atxabalpeko lurra Zigorrolakoa baino merkeagoa ei zen, baina luzera garestiago irten da. Zein joango da, ba, Garagartzaraino futbola ikustera? Neguan, Atxabalpen ez da giro izaten.

Atxabalpe egitea, hortaz, hanka-sartzea izan zen.

Nik oso argi daukat hori. Futbol zelaia Zigorrolan egingo balute, gauzak bestelakoak izango liriteke. Taldeak jarraitzaile gehiago izango lituzke, askoz hurrago dago-eta. Zigorrolara joatea ez da batere kostatzen, baina Atxabalpera joatea, ordea, bai.

Orain, Zigorrolan egin behar ei dute futbol zelaia. Argi daukat Zigorrolan beste aldi bat hasiko dela eta taldeak gora egingo duela. Ordura arte, ordea, ez dut uste ezer egingo dutenik.

Zaldibarko Txapelketan ere izan zara antolatzaile eta epaile lanetan.

Hori ere dezente aldatu da. Lehen zegoen errespetua galdu egin da eta gaur egun edozer ikusi daiteke. Lehen, epaileak esaten zuena jokalariek isil-isilik betetzen zuten. Orain, ordea, nahikoa lan izaten dute epaileek, jendea edozein modutan joaten da-eta futboleko jokatzera.

Ikusi zenuen Real Madrid-Bayern partidua?

Bai, eta Real Madrilek zortea izan zuela esango nuke. Iker Casillasek egin zuena egitea oso gaitza da. Denbora luzean jokatu barik egon, hamar minuturako irten, eta geldiketa horiek egitea.

Noiztik ez duzu ikusi Zidanek sartu zuen moduko gol bat?

Rivaldoren gola ikusi nuenetik. Hura ere ederra izan zen, baina Zidanena ere ikusgarria izan zen. Zortea ere izan zuen. Gola hura ez luke berriro egingo.

Horrelako zenbat gol egin behar dira milioika euro irabazteko?

Askok diru asko irabazten dute. Entrenatzaile izatea leku guztietan da gaitza, baina horrelako talde baten, askoz ere gaitzagoa. Horrenbeste diru irabazten duten jokalariekin lan egitea-

Elkartasuna erakusteko, egun osoko festa izango da Seber Altube plazan

UBANE MADERA

Maiatzean zinekluba ematen ibili eta gero, Arrasateko IV. Elkartasun Egunaren barruan ospakizun nagusia bihar egingo dute Arrasaten. Erakusketak, saltokiak, umeendako jokoak eta kale antzerkia izango dira, besteak beste. 10:00etatik 20:00etara da jaja.

Egitarau zabala ari du izaten aurreten Elkartasun Egunak. Maiatzaren hasieratik hil bukaerara arteko egitaraua antolatu dute. Horrela, bada, eguenero, zinekluba izan da Amaia Udal Antzokian. Nazioarteko filmak eman dituzte: Frantziakoak, Irangoak eta Boliviakoak, esaterako. Eguenean, hilaren 30ean, bukatuko da zikloa. Fernando Leon de Aranoa espainiarraren *Caminantes* dokumentala emango dute.

Horrez gain, gaur itxi dute boluntarioen gainean Musakolako kiroldegian izan den erakusketa. Eta umeen eskubideak ere landu dituzte maiatzaren hasieran Monterronen ipinitako UNICEFen erakusketa batekin. Eguaztenean, berriz, EHNEko ordezkari Paul Nicholonek eta Thamer Birawik Palestinaren gainean egin zuten berba.



MUGARIK GABEKO INGENIARIAK
Musika eta bestelakoak ere izango dira, eta Itxaro Artolak esatari lanak egingo ditu.

Baina egun handia bihar izango da, zapatua: Elkartasun Eguna ospatuko dute.

GKE GUZTIAK BAT EGINIK

Goizeko hamarretan hasi eta 20:00ak arteko festa izango da Elkartasun Eguna. Izenak esaten duen moduan, elkartasuna adieraztea da helburua. Horretarako, erakusketak, bidezko merkataritzako produktuen saltokiak, umeendako jokoak eta kale

antzerkia izango dira Seber Altuben. Ibarreko gobernu kanpoko erakundeek (Harreman, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Mundu Solidarioa Helburu eta Serso-San Viator) eta Cáritasek antolatu dute. Eta beste 12 erakunde gonbidatu dituzte. Hortaz, herrialde eta mota askotako produktuak eta proiektuak izango dira ikusgai eta erosgai; eta lantzen ari diren proiektuen berri ere emango dute.

LABUR

Etxeazpian bidea handitzeko eta Erguinen eskudela ipintzeko lanak adjudikatu dituzte

Etxeazpia kalera bidean dagoen berdeguneko bidea handitzeko eta argitzeko lanak adjudikatu ditu Arrasateko Udalak. Construcciones Canas Esteban enpresak aurkeztu du eskaintzarik merkeena; hortaz, enpresa horrek egingo ditu lanok. Ia 15.000 euroko aurrekontua eta hilabeteko epea izango dute horretarako.

Bestalde, Uriburu-Erguinen dagoen arrapalan eskudela ipintzeko lanak ere adjudikatu dituzte. Errota-Gain enpresak egingo ditu, hilabete baten, eta ia 4.000 euroko aurrekontuarekin. Hori guztiori oraingo asteko Gobernu Batzordeak onartu du.



Ehun bat litro gasolio isuri ziren

Astlehenean, San Andresko Fagor lantegiaren kanpoan deskargatzeko zain zegoen kamioi bati 100 bat litro gasolio irten zitzaizkion biltegitik. Kontua da, gidaria biltegi batetik bestera gasolioa pasatzen ari zela, kamioiaren aurreko biltegiak gainezka egin zuela. Gasolioa errepidera isuri zen. Eta isurketa-aren ondorioz, Takoloko biribilunetik Mecarako noranzkoa eten egin zuen Udaltzaingoak, errepidea garbitu zuten arte. Ibilgailuak saihebidetik desbideratu zituzten. Hori 14:50ean gertatu zen eta pare bat ordu inguruz egon zen errepidea itxita.

Aurtengo inbertsioak murriztu behar izan ditu AUKEAK

UBANE MADERA

AUKEAK aurtengo inbertsioen aurrekontua murriztu eta egokitu behar izan du. Hain zuzen ere, eskatzen zuen kopurua 120.000 euro pasatxo gutxitu du. Izan ere, muga hori ezarri dio Arrasateko Udalak. Hortaz, 240.000 euro pasa-

txoko aurrekontua izango du aurreten AUKEA elkarteak.

ALDAKETA UGARI

Diru horrekin lan dezente egitea pentsatu du AUKEAK, gehienak Musakolako kiroldegian. Oro har, kiroldegi osoa birmoldatzen ari dira eta hango kanpoko pistak bir-

moldatzea ere pentsatu dute. Beste gauza batzuen artean, gimnasioarako ekipamendua erosteko inbertsio handia egingo du. Hori guztia, Musakolan. Horrez gain, esaterako, Antoña eta pilotalekuak ere birmoldatu gura ditu AUKEAK, baita Uarkapeko boulderra handitzeko lanak egin ere.



Parques y Jardines

- Parke eta lorategien sorkuntza.
- Lorazaintzako mantenimendua orohar.
- Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.

Casa-Torre kalea. Tel.: 94 681 90 82 • ABADIÑO



Zabaletako metalezko zubia kentzeko eta berria egiteko lanak

UBANE MADERA

Zabaletako metalezko zubia kentzen ibili dira oraingo astean. Horren ordez, beste zubi bat egingo dute, baina errepidearen parean, eta ez errepidearen gainetik, orain artekoa moduan. Helburua da zubi berri horrek jendeari bidea erraztea.



UBANE MADERA

Zubi berria egiteaz gain, bestelako lanak ere egingo dituzte Zabaleta inguruan.

Eroski inguruan dagoen Zabaletako zubia kentzeari ekin diote oraingo astean. Metalezkoa, alegia. Izan ere, Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenaren arabera, zubi berri bat egingo dute han. Zubi hori errepidearen parean eraikiko dute, eta ez oraingoa moduan, errepidearen gainean; jendeari bidea erraztea da horren helburua eta gora eta behera ibiltzeko beharrik ez izatea. Makina bat bider ikusi izan ditugu pasierara zihoazenak errepidea gurutzatzen zubira igo beharrean.

Lan hauek finantzatzeko hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain zuzen ere, Foru Aldundiak ia 342.577 euro emango ditu. Eta falta dena, 769 mila euro pasatxo, Arrasateko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean ordainduko dute. Izan ere, guztira, milioi bat euro pasatxo aurrekontua dute lanok.

ZIRKULAZIO ARAZOAK KONPONTZEKO
Zubiaz gain, baina, bestelako lanak ere egingo dituzte Musakola inguru hartan. Batetik, oinezkoendako pasabidea hobetuko dute oro har; bestetik, Deba ibaiaren ubidea egokitu egingo dute eta hirugarrenik han dauden lantegietara sartzeko bide egokia egin-

go dute, Eroskiko aparkalekua-
ren ondotik. Hain zuzen ere, lanon arduradunak adierazi digunez, zubi kentzeaz bat, Eroskitik zehar lantegietarako desbideraketa egiten ari dira orain eta hori bukatu eta berehala hasiko dira gainerako lanak egiten.

Horrekin guztiarekin, gaur egun inguru hartan dauden zirkulazio arazoak konpondu gura dituzte. Oro har, lanak egiteko epea urtebetekoa da.

Arrasateko Udaltzaingoaren lantaldeak udaltzain gehiago ditu

UBANE MADERA

Oraingo astean, udaltzain gehiago hartzeko azterketak egin dituzte Arrasateko Udalean. Eta azterketa egin duten hamahiruetatik, zazpi sartuko dira Udaltzaingoaren lantaldean. Ekainaren erdi edo bukaera aldean hasiko dira lanean, prestatu eta gero.

Dagoeneko badira hilabete batzuk Arrasaten udaltzain berriak ikusten ari garela. Izan ere, beharra dagoela-eta, Udala zerbitzu hori indartzen ari da azkenaldian.

Horrela, orain artekoek gain, ekainetik aurrera udaltzain gehiago ikusiko ditugu kalean. Zazpi gehiago, hain zuzen. Izan ere, hautatze frogak orain gaingitu arren, jantziak prestatu behar zaizkie eta ikastaroa eman. Hortaz, ekainera arte ez dira lanean hasiko. Ekainetik aurrera, Jose Mari Urizarrek Zerbitzu Saileko buruak esan digunaren arabera, 27 udaltzainek jardungo dute herria zaintzen. Horietatik hamar behin-behineko kontratuarekin, baina, Arrasateko Udalak lanpostu finkoak betetzeko plazak ere zabalteko asmoa du, eta hori egiten

duenean, guztira, 11 udaltzain sartuko dira lantaldean.

BEHARRAREN ARABERA

Izan ere, eta aurrez ikusitakoari segituz, 28 udaltzain arteko lantaldea eratu gura dute. Dena dela, Jose Luis Etxebarria udaltzainburuak gaineratu digunez, beharrik ikusi eta horien arabera joango dira handitzen lantaldea. Eta, gainera, udaltzain berriak lanean hasten direnean, gaueko txanda eskaintzeko moduan izango da Arrasateko Udala. Edoze-lan ere, hori noiz izango den oraindik zehaztu barik dago.

LABUR

Eraikuntza sektorea eta Lanbide Heziketa berbagai Arizmendiren mahai-inguruan

Lana topatzeko aukera berrien barruan, Lanbide Heziketa izango dute protagonista datorren egunean Arizmendik antolatutako mahai-inguruan. Horrekin batera, eraikuntza sektorea ere aztertuko dute; hain zuzen ere, sektore horren gaurko eta etorkizuneko beharrak. Adituak gonbidatu dituzte saiorako: Arizmendiko Lanbide Heziketako zuzendaria, Sukia eta ASCONGI eraikuntza enpresetako ordezkariak eta LKSko ordezkaria, esaterako. Eraikuntzan diharduten ikasleen esperientzia entzuteko aukera ere izango da, bereziki lan horretan diharduten nesken esperientzia. Eta Arizmendiko heziketa zikloen ezaugarriak ere azalduko dituzte. 18:00etan hasiko da ekitaldia, San Viator Txikiko aretoan.

Epaileak arrazoia eman dio Udalari Telefonicarekin izandako ika-mikan

Epailearen ustez, Arrasateko Udalak arrazoia du Telefonicarekin izandako auzian. Kontua da Cerrajerako etxebizitzak egin behar diren gune guztian kablea sartzeko hodiak ipintzeko baimena eskatu zuela Telefonicak, baina Arrasateko Udalak ezezkua eman zion. Udalaren esanetan, kontuan hartuta bestelako teleoperadore batzuk ere badaudela, guztien artean banatu beharko lukete kablea sartzeko hodia. Udalak gaineratu du, era berean, kontuan hartu behar dela Arrasaten ez dagoela lurzoru larregirik, hortaz, espazioaren kudeaketa egokia egiteko, hodiak teleoperadore guztien artean erabili beharko lituzketela uste du. Esan bezala, epaileak arrazoia eman dio Udalari.



Laino bitxiak Arrasateko zeruan

Martitzen iluntze aldera, gure irakurle batek emandako abisuari esker, honako argazki bitxi hau ateratu genuen. Gure irakurleak esan zigunez, berak ez du sekula horrelako lainorik ikusi. Kalean ere gauza bera esan zuen zeruari begira zegoen herritar batek baino gehiagok. Akaso beroak eraginda sortuko ziren horrelako lainoak. Kontuak kontu, hortxe irudia.

PUB HAIZEA

arrasate

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Danona
KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura


Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06




ARIZMENDIKOAK IKASKETA-BIDAIA

Arizmendiko DBHko bigarren mailako ikasleak maiatzaren 23tik 26ra arte ikasketa-bidaian ibili ziren. Bidaia Madrilera egin zuten, baina Espainiako hiriburua bisitatzeaz gain, Segovian eta Toledon ere izan dira. Argi dago, hortaz, lau egunak

bikain aprobetxatu dituztela. Madrilen hainbat kultura ekitaldiz gozatzeko aukera izango zuten, baina Warner Bros parke estreinatuta berrira joateko astia ere izan zuten, eta parke hartan euren saltsan ibili ziren. Itzuli ere neka-neka eginda itzuli ziren.



Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



SASKIBALOIKO NESKAK, OPORRETAN

Arrasateko junior mailako neskek joan den astean izan zuten denboraldiko azken partidua, eta denboraldia amaituta, merezitako oporrak izango dituzte. Aurten ere lan polita egin dute etxeko neskek, nahiz eta talde nagusien kontra

jipoiren bat edo beste jaso duten. Joan den asteburuan, Kenci Arrasateko neskek Indulita Nies liderraren kontra jokatu zuten Musakolan. Emaizarik ez jartzeko eskatu ziguten, eta halaxe egingo dugu, nahiz eta emaitza gutxienekoa den.

GRAFITIAK, KALEETAKO ARTELAN KOLORETSUAK

Joan den aspaldian, Arrasateko eta inguruko herrietako hainbat horma grafitiz beteta daude. Lantegietako hormak ere margotzen dituzte maiz. Batzuei ez die grazia handiegirik egiten, baina beste batzuek euren lantegiko hormak margotzeko eskatzen dute. Grafitilarien helburua margoak ahalik eta leku ikusgarrienetan egitea izaten da. Tranbia egiten dutenean, tentazioa handia izan daiteke.



TUNISIAN BADAGO ZER IKUSI

Mondragoeko lau lagun hauek Tunisian izan dira apirilean. Jaiegun batzuk edukita, hegoalderantz joateko erabakia hartu zuten, eta ez dira damutu, ezta gutxiago ere. Eguzki bila abiatu ziren, eta hori, behintzat, nahi adina izan dute. Basamortuan izan dira, baita ganbelu artean ere, eta bi astean ez dute aspertzeko denborarik izan. Matmata asko gustatu zaie, eta hantxe dauden etxebizitzak ikusgarriak ei dira.

Ander Corcuera kopako lasterketa korrituko du Xerezen

XABIER URZELAI

Arrasateko pilotu gazteak Xerezko zirkuituan denboraldi-ko hirugarren eta laugarren lasterketak korrituko ditu domekan. Arrasatearra eguzten ilunkeran abiatu zen Xerez aldera; izan ere, atzo eta gaur entrenamendu saioak egiteko egunak zituen. Bihar, sailkapen lasterketak izango ditu.

Bi egunez autoarekin entrenatzen ibili eta gero, bihar, zapatua, egun garrantzitsua izango da, domekako lasterketarako denborak hartuko dituzte-eta.

Domekan, berriz, Hyundai Kopako hirugarren eta laugarren jardunaldiak jokatuko ditu, eta aurreko lasterketan eskuratutakoa errepikatzen saiatuko da, podiumera igotzea, hain zuzen.

Ander Corcuera esanetan, Hyundai Kopan Clio Kopan egin




ARRASATE PRESS

Ander Corcuera Hyundai Accent autoa, denboraldiko lehen lasterketan.

ez zezakeena egiten du: gehiago entrenatu, hain zuzen. Orain arte, entrenamendu egun bat baino ez zuen izaten lasterketa aurretik, eta askotan sailkapenetako las-

terketa aurretik itzuliren bat edo beste egitearekin konformatu behar zen. Oraingoan, bi egun izango ditu entrenatzeko. Ea lasterketa egunean nabaritzen den.

FOTOKIROLA



Domekan, A Mailako Eskola Arteko Txapelketa izango da Gasteizen

Oraingo asteburuan, Gasteizko Abetxukoko kiroldegian jokatu da A Mailako Eskola Arteko Txapelketa. Arrasaten jokatu zen txapelketan postu onenak eskuratu zituztenak izango dira domekan Gasteizen, eta Arrasatetik zazpi gimnastak eskuratu zuten domekako txapelketarako txartela. Alebin mailan, Mondragoeko sei gimnasta arituko dira: Ainhoa Apaolaza, Jone Goikolea, Leire Poyato, Saioa Arriola, Mireia Rodríguez eta Amaia Sánchez taldeka arituko dira; horrez gain, aipatutako lehenengo hiru gimnastak banaka ere arituko dira, Arrasateko proban lehenengo hiru postuak eskuratu zituzten-eta. Infantil mailan, Arrasateko ordezkari bakarra izango du, Marta Etxebarria, hain zuzen. Martak bakarkako ariketak egingo ditu. IX.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

AC Surcos - Dribling	3-4
Goma2 - You Know	4-5
Koka Junior - Irati STS	4-3
Rayo Aldeano - Etxerat	5-4

PARTIDUAK

MAIATZAK 25, ZAPATUA. EPAILEAK

18:00 Rayo Aldeano - Dribling. Antolat.
19:00: KJ Basati - You Know Antolat.



ZALDIBARKO ANTOLAKUNTZA

You Know taldeak Koka Junior taldea izango du aurrez aurre.

ORDUTEGIA ZEHAZTEKO NAHIKO LAN

FINALERDIAK JOKATZEKO ARAZOAK IZAN DIRA ORDUTEGIAREKIN

Oraingo arte finalerdiak zapatu arratsaldeetan jokatu izan dira. Lehenengo partidua arratsaldeko bostetan hasten zen eta bigarrena seiatan. You Know taldeak zapatu goizean jokatzeko eskatu du, baina Koka Junior Basati taldekoei ez zaie ondo iruditu ordutegi aldaketa hori. Itxuraz, You Know taldekoei beste eginbehar bat daukate zapatu arratsaldean, baina Koka Juniorreko taldekoei ustez, hori ez da aitzakia. Azkenean, zapatu arratsaldean jokatu dira finalerdiak, arratsaldeko seiatarrean.

FINAL-LAUDENETAN, 'URREZKO GOLA' NAGUSI

Final-laurdenetan emozioa izan da nagusi; izan ere, talde bi *urrezko gola* deritzonarekin sailkatu dira finalerdietarako. Koka Junior Basati eta Irati STS taldeen arteko norgehiagoka 3-3 amaitu zen, eta luzapenean Koka Juniorrek egin zuen *urrezko gola*. Etxerat eta Rayo Aldeano taldeen arteko partiduan ere gauza bera gertatu zen. Etxerat taldeak hiru goleko errenta hartu zuen partiduan, baina aramaioarrek ez zuten partidua galdutaz jo. Berdintzeaz gain, luzapenean Rayok egin zuen azken gola.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

AUTO LASTERKETA

Hyundai Kopa
Ander Corcuera. Domekan. Xerezko Zirkuitua.
MENDIA (MENDI ASTEAREN BARRUAN)

Mendiko bizikleta irteera

Zapatuan. 09:00. Musakola.

Arrasate, Gesalibar, Kobate, Tellamendi, Etxaguen, Kurtzeta, Untzilla, Arrasate.

Mendi ibilaldia

Domekan. 08:30. Besaldeko egoitza.

Arrasate, Araotz, Alabita, Kurtzaberri, Arrasate.

FUTBOLA

Mondra - Kostkas
Ohorezko gazteak. Zapatuan. 16:15. Atxabalpe.
Arrasate - Texas Lasartearra
II. mailako gazt. Domekan. 11:00. Atxabalpe.
Tolosa - Arrasate
Ohorezko kadeteak. Zapatuan. 11:00. Tolosa.

EMAITZAK

ESKUBALOIA (KOPA)

Donibane Majestic - AGR Arrasate. 30-26
Urnietako - Arrasate. 18-22

SASKIBALOIA

Neskak: Kenci Arrasate - Indul Nies 43-45

Babeslea

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

MENDI ASTEA

Mendi Astearen barruan, mendi irteerak egingo dituzte asteburuan

Bihar, mendiko bizikletan ibiliko dira eta domekan, berriz, mendi irteera egingo dute

XABIER URZELAI

Astean barrena hainbat berbaldi, argazki erakusketa eta ikus-entzunezko egin eta gero, Mendi Astea mendian amaitzea erabaki dute Besaide Mendizale Elkartekoek. Ekitaldi bereziena, ordea, datorren asteburuan izango da: Besaideko 200 beterano baino gehiago Toloñora joango dira.

Mendiko bizikletan ibiltzea atsegin dutenek aukera ederra izango dute bihar, zapatua, Besaide Mendizale Elkartekoek ibilbide ederra antolatu dute-eta. Arrasateetik abiatu eta Gesalibarrerako bidea hartuko dute; Kobatetik gora eginez, Tellamendira joko dute, eta gero, Etxaguenera jaitziko dira; Aramaioko auzo garaianetik Kurtzetara joango dira; Kurtzetatik Arrasatera bueltatuko dira, Untzillatik. Ez da buelta makala gero. Irteera horretan parte hartzeko asmoa dutenek goizeko bederatzieta Musakolako kiroldegian egon beharko dute. Bestalde, itzuli hori egin eta gero dutxatzeko eta bizikleta gar-



ARTXIBOA

Mendiko bizikleta irteera zapatuan egingo dute, goizeko bederatzieta.

bitzeko aukera egongo da.

Domekan, bizikleta alde batera utzi eta mendiko botak jantzi dituzte. Irteera goizeko zortzi eta erdietan izango da, Besaideren egoitzatik. Lehenik, Araotzera joango dira; handik Alabitarara igoko dira; Alabitaratik Kurtzeberrira igoko dute; eta eguerdi

partean etxera bueltatuko dira.

EKAINAREN 1EAN, TOLOÑORA

Datorren asteburuan, Besaide Mendi Elkartek irteera berezia antolatu du elkarteko beteranoendako: Toloñora joango dira 200 beterano baino gehiago. Eta gero, Bastidan bazkalduko dute.

ATLETISMOA

Arrasate Atletiko Taldeko infantilek urrea eskuratu zuten Zumarragan

Mondragoetarrak azkarrenak izan ziren 4x80 metroko txandakako lasterketan

X.U.

Joan den asteburuan, Arrasateko infantil mailako atletak Zumarragan izan ziren, eta sekulako lana eginda lehenengo postua eskuratu zuten 4x80 metroko lasterketan. Beñat Barberenak, gainera, zilarra eskuratu zuen altuera-jauzian: 1'49 metroko jauzia egin zuen.

Joan den asteburuan, pozik bueltatu ziren mondragoetarrak Zumarragatik. Eta ez da gutxiagorako, Arrasate Atletiko Taldeko infantilak azkarrenak izan ziren-eta. Hori gutxi izango balitz, Beñat Barberenak altuera-jauzian 1'49 metroko jauzia egin zuen eta zilarra eskuratu zuen. Eneko 1'52 metroko jauzia egiten ere ahalegindu zen, eta gutxi falta izan zitzaion, baina ez zuen mar-

ka hori lortu. Oraingo zapatuan, Arrasateko atleta gazteak Mendizorrotzan jokatu den Euskadiko Txapelketan izango dira, infantil mailan. Fernando Zufria entrenatzaileak argi dauka bihar taldeko atletak aurreko asteko markak hobetu egingo dituztela.

Gazte mailako Euskadiko Txapelketan Iñaki Viterek brontzea eskuratu zuen disko-jaurtiketan: 35'96 metroko jaurtiketa egin zuen. Pisu-jaurtiketan, berriz, laugarren izan zen, 11'58 metroko jaurtiketarekin. Bestalde, Ibai Irastortza seigarren izan zen 330 metroko hesi-lasterketan.

JONATHAN PÉREZ, HIRUGARREN

Real Sociedad taldean ari den atleta arrasatearra hirugarren izan zen Oviedon jokatu zen Oho-rezko Ligan. Jonathanek 4'50 metroko jauzia egin zuen pertikarekin eta brontzea eskuratu zuen. Taldeka, Real Sociedad taldea bigarren geratu zen.

Eta azkenik, Donostian jokatu zen maratoi erdian Maria Jose Gil mondragoetarra laugarren izan zen beteranoen mailan. Arrasatearrak ordubete eta berrogeita bi minutu behar izan zituen maratoi erdia betetzeko.



ARTXIBOA

Arrasate Atletiko Taldeko atleta infantilak.

DUATLOIA

Azkoitian Jon Aperribai bigarren geratu zen eta Zuhaitz Ezpeleta hirugarren izan zen

Arrasateko atletak podiumean amaitu dute duatloiko denboraldia. Azkeneko proba Azkoitian jokatu zuten joan den astean eta Jon Aperribai bigarren izan zen, 1:15:20 denborarekin. Zuhaitz Ezpeletak, berriz, minutu bat eta hogeitasegundo gehiago behar izan zituen proba egiteko eta hirugarren iritsi zen helmugara. Orain go asteburuan atletak atseden hartzeko aukera izango dute, eta datorren asteburuan lehen triatloia jokatu dute, Sopelan.

XAKEA

Gaur, Arrasate Hiria Xake Txapelketako zazpigarren jardunaldia jokatu dute

Joan den egubakoitzean, seigarren jardunaldian, Jose Manuel Hermandok eta Isidro Ruizek indarrak neurtu zituzten, eta berdindu egin zuten. Josu Tornayk, bestalde, galdu egin zuen Gerardo Fernándezen aurka. Tornayk, edozelan ere, Euskadiko Partida Azkarretako Txapelketa eskuratu zuen asteburuan Bergaran. Jesus Mari Agirretxek eta Jose Javier Garridok ere berdindu egin zuten eta Borja Zamarbidek irabazi egin zion Luis Angel Ortegarari. Liderra Limeres da, Karen San Pedrori irabazi eta gero.

Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

A Taldea			B Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Oscar - Igor	4	7	Eimon - Iker	4	7
Gaizka - Iraultza	5	7	Txori - Kaji	3	6
Xabi - Egoitz	3	5	Ander - Mikel	4	5
Gaizka - Ugutz	3	5	Aritz - Aitor	3	4
Toribio - Pi	3	5	Ion - Igor	2	3
Pin - Bode	3	4	Pitu - Muxi	2	3
Xabi - Gufi	3	1	Oxel - Kuki	2	2

D Taldea			E Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Bolu - Egoitz	4	8	Iñigo - Isturiz	4	8
Txetxi - Albes	4	6	Txopo - Frantxis	5	8
Zubi - Pon	4	6	Iker - Iker	4	7
Kepa - Goiko	3	5	Jon - Andoni	4	5
Edu - Igor	4	5	Ander - Ibai	2	3
Iraultz - Aitzib	2	4	Lur - Skritx	3	3
Mikel - Unai	3	4	Tximu - Zaka	2	2
Xabier - Oscar	4	4			



Hurrengo partiduak:

Maiatzak 25, zapatua (Musakolako kiroldegian)

- Aritz - Aitor vs Eimon - Iker 10:00 Frontoi txikiak
- Jon - Igor vs Pitu - Muxi 10:30 Frontoi txikia
- Ander - Mikel vs Oxel - Kuki 11:00 Frontoi handia
- Gaizk - Irault vs Gaizk - Ugutz 11:30 Frontoi txikia
- Pin - Bode vs Xabi - Egoitz 12:00 Frontoi handia
- Oscar - Igor vs Toribio - Pi 12:30 Frontoi txikia
- Iker - Iker vs Ander - Ibai 10:00 Frontoi handia
- Jon - Andoni vs Lur - Skritx 10:30 Frontoi handia
- Tximu - Zaka vs Iñigo - Isturiz 11:00 Frontoi handia
- Xabi - Oscar vs Zubi - Pon 11:30 Frontoi handia
- Mikel - Unai vs Edu - Igor 12:00 Frontoi handia
- Txetxi - Albes vs Kepa - Goiko 12:30 Frontoi handia
- Bolu - Egoitz vs Iraultz - Aitzib 13:00 Frontoi handia

FUTBOLA

Datorren denboraldian Josu Zubia izango da Mondrako entrenatzailea

David Zaitegi mondragoetarra arituko da bigarren entrenatzaile moduan

XABIER URZELAI

Mondrak agur esan dio aurten denboraldiari eta datorren urtean etxeko taldeak berriro ere erregionalean jokatu du. Raul Leibak ez du entrenatzaile postuan jarraituko, garesti ordaindu du etxeko taldeak egin zuen denboraldi hasiera txarra. Hala ere, talde bat gidatzen badakiela erakutsi du.

Entrenatzaile berriak gauza bat izan beharko du argi: datorren urtean hasiera-hasieratik egin beharko direla gauzak ondo. Horretarako, aurrendenboraldiak garrantzi handia izango du. Zein motatako taldea nahi duten eta taldeak zelan jokatu behar duen argi izan beharko dute bai Josu Zubiak bai eta David Zaitegik ere. Horrez gain, jokalaria lehenengo partiduetarako sasoiaren egotea lortu beharko dute.

Aurten argi geratu da lehenengo lau jardunaldietan kale egitea garesti irten daitekeela. Eta gero, hamaika partidua galdu gabe egonda ere, goiko taldeei harra-patzea ia ezinezkoa izaten dela, goiko taldek ez dute-eta barkatzen.



Mondrak 5-1 irabazi zuen denboraldiko azken jardunaldian.

JULEN IRIONDO

Datorren urtean ere lau talde izango dira preferente mailara igotzeko borrokan arituko direnak. Gainerako taldeek besteoi helburu horiek zapuzteko eta beheko mailara ez jaisteko jokatu dute. Preferentera igotzeko aukerak izango dituztenei irabaztea ezinbestekoa izango da, baina gainerako taldeen kontra hutsik ez egi-

tea ere garrantzitsua izango da.

Etxeko taldeak behin baino gehiagotan argi erakutsi du errazago jokatzen duela goiko postuetako taldeen kontra, baina partidua zakarrak ere izango dira, futbolearen egitea ezinezkoa izaten den horietakoak. Argi izan behar da erregional mailan gaudela. Zorte on entrenatzaile berriei.

FOTOKIROLA



Laubiden, saskibaloia protagonista

Joan den astean, Kenci Arrasate taldeak antolatuta, 3x3 Saskibaloia Txapelketa izan zen Laubiden. Goizeko hamarretatik arratsaldeko zazpiak arte saskibaloia izan zen nagusi. Tau Basconia taldeak hamar saski utzi zituen eta guztira 92 neska-mutiko ibili ziren saskibaloian. Giro aparta izan zen, neurri handi baten eguraldiak ere lagundu egin zuen-eta. Beste behin, ondo pasatzea izan da saskibaloia txapelketa horren helburua. Baita gazteenei saskibaloian egiten irakastea ere. /X.U.

IKASTARO BERRIAK-UDA 2002



INGURUMEN IKASTARO LABURRAK

Zer egin zaborrarekin, birziklapena...
Noiz: Ekainean, 14, 18 eta 21 egunetan.
Non: Arrasateko Ingurugiro eskolan.
Autobusa jarriko dugu.
Dohainik.

EMAKUME GAZTEENDAKO IKASTAROAK

Eskalada ikastaroa

Noiz: Ekainean, asteburu bat.
Non: Oñatin eta Eginon.
Autobusa jarriko dugu.
Plaza mugatuak.
Monitore bat 4 laguneko.

Autodefentsa ikastaroa

Emakumezkoak seguru egoteko eta sentitzeko bitartekoak ikasiko ditugu.

Noiz: Ekainean, 10 ordu, asteburu baten edo astegunetan.
Dohainik.



Izena emateko edo informazio gehiagorako
Emakume Saila. Tel.: 943 79 41 39
Gazte Bulegoa. Tel.: 943 77 00 65



TRIKITILARIEN JAIA

Arrasateko Trikitilarien Elkarateak urteroko jaia ospatuko du bihar, zapatua

Arrasateko Trikitilarien Elkarateak hamaikagarren urteurrena beteko du aurten eta horretarako egitaraua antolatu dute

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Trikitilarien Elkarateak hamaikagarren urteurrena ospatuko du bihar, zapatua. Egitaraua polita antolatu dute Trikitilari Elkaratekoek. Eguerditik hasi eta iluntzera arte, kalejira, bazkaria eta musika talde baten emanaldia izango dituzte.

Bihar, zapatua, Arrasateko trikitilariak egun berezia ospatuko dute. Aurten, hamaika urte bete ditu Arrasateko Trikitilarien Elkarateak eta, ohitura duten moduan, jaia antolatu dute. Iaz, elkarateak hamar urte bete zituen eta egitarau berezi prestatu zuten. Aurten, berriz, azken urteotako antzeko egitaraua egingo dute.

12:30ean, Trikitixa Eskolakoek kalejira egingo dute, herria alaitzeko eta ekitaldiz betetako eguna hasteko. Eta gero, 14:30ean, Uarkape pilotalekuko jatetxean eskolako irakasle eta ikasleek bazkaria egingo dute. 50-60 bat lagun batuko direlakoan daude

antolatzaileak. Bazkalostean, 18:00etan, herriko plazan umendako jolasak antolatuko dituzte eta jarraian, Zarauzko Etxabe anaaien musika emanaldia izango da, iluntzera arte.

Arrasateko trikitilarien presidentek, Josu Iriak, elkaratearen balantze baikorra egingo du. Izan ere, ehun bat ikasle dituzte, hirurogei bat soinua jotzen eta beste berrogei bat panderoa jotzen ikasten. "Trikitia ez dago gailurrean, baina jende kopurua mantentzen da, eta ez da gutxi. Gainera, jendea pozik dabil, eta hori da garrantzitsua", azpimarratu zuen Josu Iriak. Horiez gainera, bospasei irakasle eta arduradun bat dabilza lanean.

Bestalde, Udalak utzi zien behin-behineko egoitzarekin nahiko konforme daude. Joan den uztailera arte Ospitale Zaharrean egon ziren eta iaz, urrian, ikasturte hasierarekin batera, Saiolan azpiko behin-behineko egoitza estreinatu zuten. Ondo ei daude hantxe, baina Udalak egingo duen egoitzaren zain daude.



Bihar, Trikitixa Eskolakoek euren doinuekin alaitasuna emango diote herriari.

Parte hartu **600 €** hileroko zozketan
(Maiatzetik uztailera)

Sari-txartelak Ibai-arte komertzioan aurkituko dituzue



Ospatu gurekin
10.
urtebetetzea



ELKARRIZKETA

GORKA AGINAGALDE/SOBRADUN ANTZERKI TALDEKO PARTAIDEA

“Boterea zirikatzen dugu, eta azkeneko lana ez da salbuespena”

ARRASATE IRRATIA

Bihar, Sobradun antzerki taldeak *Hablar es de bobos* azkeneko lana estreinatuko du Amaia Udál Antzokian. Gidoia Santi Oruek idatzi du, zuzendaria Eloi Beato da eta aktoreak Jon Gabella eta Gorka Aginagalde dira.

Hablar es de bobos izenburu deigarria da, Sobradun antzerki taldeak estreinatzen dituen horietakoa...

Bai, horrela da. Izenburu horrek alde bi ditu, baina funtsean, berba egiten dugunean, tontakeria asko esaten ditugu.

Zuen tontakeriak gezi zuzenak izaten dira...

Bai, bai, gu oso *azidoak* gara. Beti boterea –politikoak, erregea, dirudunak...– zirikatzen ibiltzen gara eta azkeneko lana ere ez da salbuespena.

Zer dela eta estreinatuko duzue *Hablar es de bobos* Arrasaten?

Sobradun taldearen ustez, antzezteko bi herri hoberenak Arrasate eta Agurain dira. Orain arteko estreinaldi guztiak, komeria basatien trilogiakoak –*Herminio y Miguelito*, *30 millones de gilipollas* eta *No hay huevos*–, Agurainen egin ditugu, baina orain aldaketa bat egin gura genuen.

Arrasate leku ona da antzezteko?

Gure ustez, behintzat, bai. Beti ikusle mordoia izan ditugu. Jendeak barre asko egiten du eta oso gustura etortzen gara.

Zer da errazagoa, barrea ala negarra eragitea?

Negar egiteko gauza mordoia daude, are gehiago hemen, Euskal Herrian. Hortaz, hobe barre egitea!

Sobradun taldearen ibilbidea gainbegiratu duzue?

Bueno, Sobradun antzerki taldea 1994. urtean jaio zen. Urte hartan, *Herminio y Miguelito* antzezlarekin hasi ginen, Mauro Entrialgoren komikiaren pertsonailetan oinarrituta. Gerora, *30 millones de gilipollas* egin genuen. Espainiaren eta Brasilen arteko futbol finalaren parodia egin genuen eta futbol zaletasunari barre egin genion. Gero, telebista antzekotasuna daukan *No hay huevos* egin genuen. Orain, berriz, *Hablar es de bobos* aurkeztera gatoz. Aldaketa handiena izan da orain ikusleekin berba egin eta harreman zuzenagoa dugula. Lan horretan, antzerki hizkeran deritzon *laugarren paretik* ez dago.

Hirukote izatetik bikote izatera igaro zarete. Zer dela eta?



Sobradun taldekoak euren antzezlari berria eta kaleko graffitiak estreinatuzera etorri dira.

“Sobradun taldearen ustez, antzezteko bi herri hoberenak Arrasate eta Agurain dira”

Bai, Jon Gabella eta biok izateko bikote gara dagoeneko. (Barreak). Sobraduneko hirugarren partaidea, Iñaki Rodaballo, aita izan da eta, gainera, sagardotegi baten dabil lanean. Hortaz, ezin da gurekin buru-belarri ibili eta emankizun bakan batzuetan bakarrik lagunduko digu.

Behin Arrasaten lan berria estreinatu eta gero, zein asmo daukazu?

Lehenengo eta behin, Euskal Herriko ohiko lekuetan antzezten ibiliko gara –Zornotzan, Gernikan, Barakaldon, Lasarten...– eta gero, Espainiako hainbat hiritarra joko dugu.

Eta atzerrira salto egiteko asmorik badaukazue?

Bitxikeria bat kontatuko dizuet: duela hiru bat aste, Caracastik deitu zidaten *Herminio y Miguelito*-ren antzezlana Venezuelan egiteko. Eta egun bi geroago, estatu-kolpea gertatu zen.

“Sobradun gu geu gara, ez daukagu inolako zentsurarik, eta gura duguna egiten dugu”

Orain, badirudi egoera zuzendu egin dela, eta ekainean ziurtatuko digute ea azkenean Venezuelara joango garen edo ez. Guk, badaezpada, uneoro maletak eginak ditugu.

Antzerkitik kanpo, telebistan eta zinemaren ere lan egin duzue...

Bai. Gaur egun aktorek ezin gara antzerkitik bakarrik bizi. Denetarik egin behar izaten dugu. Edozelan ere, ez naiz kexatzen, lan dezente egin ditut-eta. Zinemaren besteak beste, *Airbag* –oso agerraldi laburra nuen, baina oso barregarria zen–, *Año mariano*, *Gente pez*, *El palo*, *La comunidad*, *Muertos de risa* eta beste hainbat filmetan lan egin dut.

Zer gurago duzu, zinema ala antzerkia?

Biak ditut gustuko. Desberdinak dira, baina biek dute xarma. Antzerkia egiten oso gustura ibiltzen naiz, Sobradun gu geu

“Komeria basatiaren trilogia bukatutzat eman dugu eta aldaketa batzuk egin ditugu”

garelako eta ez daukagulako inolako zentsurarik. Gura duguna egiten dugu.

Zure burua pantaila handian ikustea gustuko duzu?

Egia esan, ez dut batere gustuko. Justu-justu filmaren estreinaldia ikustera joaten naiz. Ez dut neure burua ondo ikusten, ezinezkoa da ondo agertzea, zinema ez delako Lourdes. (Barreak). Egia esan, arraro ikusten dut neure burua eta egindako lana hobe nezakeela uste izaten dut.

Eta zer deritzozu telebistan lan egiteari?

Telebista dirua da. Zentsura handia dago telebistan, handiegia. Telebistan erdizka geratzen zara beti, ezin duzu gura duzun guztia esan.

Zer gurago duzu, zuzenean ala grabatuta?

Nik gurago dut lana zuzenean egitea, antzerkiaren inguruko naiz-eta.

KULTURAPILULAK

Gazteendako Argazki ikastaroa antolatu dute

Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak gazteendako Argazki ikastaroa antolatu du. Argazki ikastaro hori hasiera maiakoa izango da eta argazki-gintzaren alde teorikoa eta praktikoa landuko dituzte.

Udaleko Gazteria Sailak udako ekintzen barruan sartu gura izan du ikastaro hori. Horregatik, ikastaroa uztailaren 3an hasi eta hilabete bereko 22ra arte iraungo du; hamabost ordu, guztira.

Astelehenetan eta eguaztenetan egingo dute Argazki ikastaroa, 18:30etik 21:00etara, ASako egoitzan.

Interesatuok ahal den lasterren eman beharko dute izena Gazte Bulegoan, Argazki ikastaroa hamabi lagunendako bakarrik izango da-eta. Matrikula hogeita hamar euro izango da eta ikasleendako eta langabeendako, berriz, hamazortzi euro.

Emakume Sailak Eskalada ikastaroa antolatu du

Udaleko Emakume Sailak emakume gazteendako Eskalada ikastaroa antolatu du. Ekaineko asteburu baten Oñatira eta Eginora joko dute, autobusez eta monitoreekin –lau laguneko monitorea bana egongo da. Plazak mugatuak dira, hortaz, ahal den lasterren, jo Udaleko Emakume Sailera edo Gazte Bulegora.

Emakume Sailarekin autodefentsa ikasteko aukera

Udaleko Emakume Sailak emakume gazteendako Auto defentsa ikastaroa antolatu du. Emakumezkoek seguru egoteko eta sentitzeko bitartekoak ikasiko dituzte. Ikastaroa ekainean egingo dute, doan izango da eta oraindik ez dute ikastaroko egunik zehaztu. Izena eman Emakume Sailera edo Gazte Bulegora.

Ingurumenaren gaineko ikastaroa Ingurugiro Eskolan

Udalako Ingurugiro Eskolan Ingurumenaren gaineko ikastaroa antolatu berri dute. Ikastaroa ekainaren 14an, 18an eta 21ean egingo dute Udalako Ingurugiro Eskolan. Udalara igotzeko autobusa jarriko dute eta ikastaroa doan izango da. Ikastaro horretan, zaborraren zer egin daitekeen, birziklapena eta beste hainbat gai jorratuko dituzte.

E, TXO!

**GAZTETXEO AZOKA
ALTERNATIBOA, ONDO**

Joan den asteburuan, gaztetxeok Azoka Alternatiboa antolatuta zuten Seber Altubeko frantziskotarren lokalean. AGAKOkoek jakinarazi digutenez, bigarren eskuko azokak oso harrera ona izan du, eta ume eta gazte asko pasatu dira azokatik. Gazteak, merke baino merkeago zeuden arropak, liburuak, diskoak eta bestelakoak eskuratzeraz; eta umeak, berriz, han zeuden jostailuekin jolastera. Oraindik ez dakite zenbat diru jaso duten, baina Xiberoa Garatzen proiekturako eskaini gura dute.

**TXATXILIPURDIKO
UDALEKUEN IZENEMATEA**

Txatxilipurdi aisialdi elkarteko arduradunek jakinarazi digute aurten go udalekuan izena emateko epea laster bukatuko dela. Izena emateko epea ekainaren 18an bukatuko da, baina irteera batzuetako plazak beteta daude dagoeneko. Esaterako, uztailean Beintzara edo Oriora joan gura dutenek ezin izango dute izenik eman, izenematea itxita dagoelako dagoeneko. Hala ere, abuztuan ere Oriora irteera bat antolatu dute eta oraindik lekua dago.

Bestalde, Txatxilipurdi elkartekoek 3. eta 4. DBHko ikasleei uztailean Asturiasen egingo dituzten udaleku itxietan izena ematera animatu dituzte; izan ere, hamar plaza besterik ez da gelditzen.

Horrez gain, eta beste irteera eta udaleku eskaintzak alde batera utzi barik, Txatxilipurdiko arduradunek hamar eta hamabi urte bitarteko gazteak Tirintaran udalekuan izena ematera animatu gura izan dituzte.

Epea ekainaren 18an bukatzen den arren, eman izena lehenbailehen.

GUREGAIK/ 'BASKONTAINER' ALDIZKARIA

Gipuzkoako gaztetxeen eta gazte batzarren aldizkaria kalean dago

IKER BARANDIARAN

Gipuzkoako gazte batzarren eta gaztetxeen koordinakundeak *Baskontainer* izeneko aldizkariaren lehenengo alea atera du. Lehenengo ale hori doan banatzen ari dira Gipuzkoako gaztetxeetan.

Gipuzkoako gazte batzarren eta gaztetxeen koordinakundeak *Baskontainer* izeneko aldizkariaren lehen alea atera du. Dagoeneko eskuragai dago Gipuzkoako gaztetxe gehienetan, doan; baita Arrasateko gaztetxean ere.


HAINBAT HERRIREN LANKIDETZA

Gazte batzarren eta gaztetxeen koordinakundeak aspaldi erabaki zuen horrelako aldizkari bat

Okupazioaren gainean jakin beharreko gauza asko batu dituzte aldizkari horretan

ateratzea. Egia esan, denbora dezente igaro da hori egiteko asmoa erakutsi zutenetik hona, baina azkenean lortu dute.

Aldizkarian Gipuzkoako gaztetxe eta gaztetxe batzarrek egingo idatzi, erreportaje eta poesiak batu dituzte. Horien artean, okupazioaren gainean jakin



IKER BARANDIARAN

'Baskontainer' aldizkaria Arrasateko gaztetxean eskura dezakezue, doan.

behar direnak: legeak, prozedura egokiena, zelan jokatu, eta beste batzuk. Horiez gainera, Pales-

tinaren, emakumeen eskubideen eta desobedientziaren gaineko idazkiak ere badaude.

LOTSABARIK/ Igor Urizar

"Indiana Jones-ekin txundituta nengoen"

IKER BARANDIARAN

Igor ez da lotsatia. Txikitik, *Indiana Jones*-en filmen eraginez paleontologo edo arkeologo izan gura zuen. Gerora, iritzia aldatu du eta ARRASATE PRESSko kazetari izan gura du Igorrek.

• Txikitik, zer izan gura zenuen?

Paleontologo edo arkeologo izan gura nuen, *Indiana Jones*-en filmak ikusi eta txundituta gelditu nintzelako. Gerora, gurari hori aldatu egin dut eta orain, kazetari izan gura nuke, ARRASATE PRESSkoa, esaterako.

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Gauza askori lotuta. Seme batekin, ezkontuta eta lanean. Gurago nuke hiri baten bizi izatea, Bilbon-edo.

• Zein da, zure ustez, adin ideiala?

Orain ez nago txarto, baina hamasei edo hamazazpi urterekin askatasun handiagoa izango nuke. Hogeita bost urtetik aurrera gauza onak bukatu egingo dira.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Une honetan, lagunei. • Zerk arduratzen zaitu gehien?

Lagunei gauza txarrik ez gertatzeak eta, gero, ikasketek. • Zerk ematen dizu lotsa?

Batzuetan tontakeriak egiten ditut eta gero damutu egiten naiz.

• Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?

Laguntzen dudala esaten didate eta egiazalea naiz, baina nahiko ezezkorra naiz.

• Arrasaten ligatzen da?


(Barreak). Adin honekin gura dugu, baina ez dugu askorik ligatzen. Inguruko herrietan gehiago ligatzen da, ziur.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak. Nire ustez, ikustea garrantzitsuena da.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Neska bati, lehenengo, itxurari eta, batez ere, begiei.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBH (2. maila) • ZALETASUNAK: Futbola, musika -euskal rock erradikala- eta lagunak
LIBURU BAT: 'El señor de los anillos' • FILM BAT: 'La naranja mecánica' • MUSIKA TALDEA: Suburban Rebels • KIROL TALDEA: Alaves

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

LANDALUZE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Etxeko txorizo bereziak
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

BEHEKODENDATIK

Yolanda Sánchez

SIKOL DENDAKUE

XABIER URZELAI

Aretxabaletan jaixo zan, baiñe mondragnetartzat dauko bere burue. UBIra arte ikesi euen, eta daguekeno badie hamabi urte Sikol dendie zabaldu euela. Dendan lentzerixia saltzen dau. Familixa danandako topauko dozue barruko erropak: aittandako, amandako eta seme-alabendako, hain justu be.

Amets bat?

Denporie polikixago juetie. Gauza onak hobeto aprobetxetako astixe eukittie.

Eta amets txar bat?

Familixakoren batei zeozer pasetie.

Egin dozun azken biajie?

Tenerifen egon gitzen Aste Santuen.

Txartel horixe, zeñiei?

Gertuko politikuei.

Eta gorrixek?

Botere haundixe daukien politikuei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

El padre de la novia / El grito silenciado / Maná gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Ez bata eta ez bestie.

Terrazak, orduen?

Bai, hori bai.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Batez be, berdeguniek. Parkiek asko zainketan dittue eta politte geraketan dabil.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Ba, akordieue egitten ahaleginduko nitzake. Gutxienez, berba egitten ahaleginduko nitzake.

Bizio bat?

Txokolatie.

Mendi bat?

Laue dan mendiren bat.



X.U.

“Gorputz politte euki ezkerro, slip-ak eta galtzazpi motzak, baiñe hori be etorriko da. Erregalo moduen hartzen daue oin”

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Kosta aldera, Donostiara-edo. Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Jente famosue baiño gehixago, gertuko jente interesante asko ezagutu dot. Esaten dittuenekin konsekuentiek dienak.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Urrunekoren batekin, barriri be elkar ez ikusteko.

Ikusten ez bada, zergaittik da horren inportantie barruko erropie?

Gustora sentiduteko. Barruko erroparako kolore bat?

“Gizonezkuek ez daue tangarik erosten, baiñe hori be etorriko da. Erregalo moduen hartzen daue oin”

Oso argixe ez dan bat, eta nobedosue, ahal bada.

Gizonendako, slip-ak ala galtzazpi motzak?

Gorputz politte badauko, bixek. Nundik dator Sikol izena?

Lehengusiña batek, txikittan, zirko esan biherrien sikol esaten euen, eta neuri grazia egitten eusten. Horregaittik, osabak Sikol deketan eusten, eta izen hori elegidu geuen dendarako.

Tangak asko ibiltten ei dittue azkenaldixen. Gizonezkuek be bai?

Neskalagunak erregaletan badutzo, bai. Mutillek ez die etorten tangak erostera. Baiñe hori be aillgauko da, lasai egon.

NIREBIDAIAHURA / Iker Saizar


Nikaragua eta Costa Rica / 2002ko otsailetik aurrera

Iker joan den astean iritsi zen Aramaia, hiru hilabete Erdialdeko Amerikan egin eta gero. Aramaion bizi den arrasatear honek ez du bidaia bakarrik egin, Aramaion bizi den beste arrasatear batekin joan zen eta, Naiararekin, hain zuzen. Biek hala biek, gogoan izateko moduko bidaia egin dute, eta hiru hilabete horien gainean badute zer kontatu.

Otsailaren 12an hasi zuten bidaia: Bilbon hegazkina hartu eta, Londresko eta Miamiko aireportuetan geldialdia egin eta gero, Managuara iritsi ziren. Managuara iritsi berri, bidaia iparraldetik hegoaldera egiteko asmoa zeukaten; León herriraino igo eta beheranzko bidea hartu zuten. La Finca del Café-n pasatutako gaua ez du erraz ahaztuko Ikerrek: “Oihan erdian zegoen finka hura, eta errotari baten pasatu genuen gaua. Oihaneko zarata artean egin genuen lo.”

Hurrengo egunean, goizean goiz irten eta San Cristobal sumendira igo ziren. Beste hainbat sumenditan ere izan dira, baina behin baino gehiagotan, sumendien gasak direla eta ezin izan dute tontorre-raino igo. Masaya, Granada, Rivas eta San Joan del Sur herriak bisitatu eta gero, Ometepe uharterako bidea hartu zuten. Ometepe uhartera Nikaraguako laku izugarri baten erdian dago, eta sumendi bik osatzen dute uhartera, Concepción eta Maderas sumendiek, hain zuzen. Uhartea hartan hamabi egun inguru egin zituzten eta Ikerri hango herri bat, Playa Santo Domingo, eta sumendi biak asko gustatu zitzaizkien.

Nikaraguetik Costa Ricara pasatzeko asmoarekin, bi lagunek Peñas Blancas-en igaro zuten gaua, eta hurrengo egunean muga zeharkatu zuten. Costa Ricara iritsi berri, Tamarindorako bidea hartu zuten, surf jaialdi bat zegoen eta han. Aldaketa handia izan zen: “Yankiz beteta zegoen hura. Dena oso garesti eta dolarretan ordaindu behar”. Ez zuten denbora luzerik egin han, baina oraindik beste hilabete bi daude kontatzeko. Datorren astean izango da.



“Tamarindon yanki mordoa zegoen. Dena oso garesti eta dolarrak nagusi”

XABIER URZELAI



Karibeko parajeak atara ditu Ikerrek argazkietan.

Arco Iris dendetan, kalitatezko argazkiak eta opariak errebelatu bakoitzeko.

“Urratu eta urretu” txartelarekin lor itzazu 50, 100 edo 150 puntu, pila itzazu, eta aukera ezazu zure oparia!

250 puntu

450 puntu

800 puntu




30 x 45eko handitzea



Kodak Picture CD. Zure argazkiak CD baten



Kodak Ultra Super Flash argazki-kamera



Argazki-albuma



Mobila



Bidaia-poltza

Juan Manuel Berrueta

Iturriotz kalea 24 ARRASATE
Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18

Argazkien, koloreen eta oparien jaialdia

ARCO IRIS

PERCOLOR

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Toki Argi elkartean antolatzen dituzten berbaldiek oso harrera ona izaten dute, eta askotan, aretoa bete egiten da.

Toki Argi: Santa Marina auzoko erretiratuendako alternatiba

IKER BARANDIARAN

Toki Argi zaharren elkarteko batzarkideak gogor dabilta ekintzak antolatzen. Izan ere, azkeneko hilabeteetan ikastaro eta berbaldi mordoak izan dituzte, eta batzarrekoek diotenez, hemendik urte bukaera arte elkarteko ekitaldien agenda, zelanbait esatearren, bete-beteta ei dute.

Santa Marinako, edo hobeto esanda, 33. *Distritu*-ko, Toki Argi zaharren elkarte orain dela hamahiru urte zabaldu zuten Agerre kalean. Pablo Urangako lehenengo Abaroa zaharren egoitza itxi eta lau zaharren elkarte zabaldu zituen Udalak herrian: Musakolako, egungo Abaroa, Urribarrikoa eta Toki Argi.

EKITALDI ESKAINTZA HANDIA

Toki Argi zaharren elkarteko partaideek ekitaldi mordo bat antolatzen dihardute, eta egunero, goizeko hamarretatik gaueko hamarretatik arte zabalik egoten da euren egoitza, taberna barne. Horrez gain, ordenagailuen gela

ere jarri dute, eta gelan bertan lauzpabost ordenagailu dituzte. Ordenagailu gela horretan oraindik ez dute ikastarorik egin, baina elkarteko bazkideek ordenagailuekin praktikatzeko erabili izan dute orain arte. Izan ere, sasoi honetan, Toki Argi elkarteko bazkideak Bergaran eta Arrasaten

Ekainean ere badago zer egin

Toki Argikoen ekitaldiekin jarraituz, maiatzaren 28an, martitzenean, **berbaldia izango dute, Sentimenak suspertu izenburupean. Ekainaren 11n, Euskal Herriko musikaren eta dantzen gaineko berbaldia ere izango dute. Ekainaren 22an, San Juan jaien aurretik, Oriora txangoa egingo dute. Eguraldi ona eginez gero, hondartzara ere joango dira.**

ikastaroak jasotzen ari dira, eta Santa Marinako elkartean bertan dituzten ordenagailuak euren eza-gupenak praktikan jartzeko erabiltzen dituzte. Izan ere, horietako erretiratu askok ez dute ordenagailurik etxean.

Toki Argi elkarteko presidentea Jose Manuel Uriarte da; presidenteordea, Jabier Zalama, eta idazkaria, berriz, Emilio Hermita. Horiez gain, beste hainbat lagunek beste arlo batzuen arduradunak dira: hain zuzen, bidaiak, ikastaroak, berbaldiak eta antzeko beste ekitaldiak.

IKASTAROAK ETA BERBALDIK

Egunotan, esaterako, ikastaro mordoak izaten ari dira. Astelehenean eta egubakoitzetan, 18:00etatik 20:00etara, margoa, zeramika eta tela lantzen ikasten dabilta. Eguaztenetan eta eguenean, kakorraz-lana, puntua, eta beste batzuk. Horiez gain, sarri, 17:00etan, berbaldiak izaten dituzte, eta bazkideen eta beste-lakoen erantzun oso ona izaten da, jende mordoak batzen da-eta.

KINTOENOSPAKIZUNA

1952ko kintoek bazkaria egin zuten

Ohitura duten moduan, Arrasateko 1952ko kintoek, hau da, 1931. urtean jaiotakoek, ospakizun eguna izan zuten joan den zapatuan. Txintxo-txintxo, eguerdiko ordu batean San Juan Bautis-

ta elizan Pedro Salaberrik esandako meza entzun zuten. Eta gero, txikiteoa egin zuten; 14:30ean, berriz, bazkaria egin zuten Aldape jatetxean. Kontu asko zuten elkarri kontatzeko eta ederto pasa zuten eguna.



JAKINGARRIAK

Erretiratuen bazkaria, kiroldegian

Arrasateko erretiratuek ospakizun eguna izango dute bihar. 11:00etan, etxafuegoak jaurtiko dituzte eta kalejira egongo dute. 12:30ean, San Juan Bautista elizan meza entzungo dute, eta 14:00etan, Musakolako kiroldegian bazkaria izango dute. 13:45ean, Abaroa paretik autobusa irtengo da gura dute-nendako. Bazkarian nagusienak omenduko dituzte, eta sari banaketa eta dantzaldia izango dira, SUDCek antolatuta.



Bola-jokoan egiteko zaletasun handia

San Isidro Egunean, Musakolako Erretiratuen Elkarteak ohiko Bolo Txapelketa antolatu zuen, eta jende mordoak geraturatu zen jokatzera, ikustera edo postura egitera.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

**BASATI
TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



ARRASATE
M^r Jose Carmona
Maiatzaren 29an, urtebetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aitor Iria
Maiatzaren 26an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Hodei Uranga
Maiatzaren 24an, 12 urte. Zorionak! Aitaita eta amama.



ARRASATE
Isidro Elduaien
Maiatzaren 24an, urtebetzea. Zorionak! Athlon-eko lagunak.



ARRASATE
Aitor Uribeberria
Maiatzaren 27an, 5 urte. Zorionak! Nerea eta izeba Floren.




ARRASATE
Ander Garai
Maiatzaren 23an, urtebetzea. Zorionak! Baserrikoak.



ARRASATE
Jon Mondragón
Maiatzaren 21ean, 21 urte. Zorionak! Familiakoak.




ARRASATE
Iñigo Arizmendiarieta
Maiatzaren 28an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mikel García
Maiatzaren 26an, 14 urte. Zorionak! 9 Sinosuke.



ARRASATE
Maialen Uranga
Maiatzaren 23an, 10 urte. Zorionak! Aitaita eta amama.



ARRASATE
Xabi Nevado
Maiatzaren 17an, 22 urte. Zorionak! Jon, Belen eta familiakoak.



ARRASATE
Maialen Sarde
Maiatzaren 23an, 15 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Oier Arregi
Maiatzaren 26an, 13 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



ARAMAIO
Maialen Urizar
Maiatzaren 22an, 15 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Iratxe Díez
Maiatzaren 28an, 29 urte. Zorionak, potxola! Lagunak.



ARRASATE
Karlitos Beltrán
Maiatzaren 23an, 13 urte. Zorionak! Laguntxoak.



ARRASATE
Markel Otxoa
Maiatzaren 31n, 3 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Kattalin Rodríguez
Maiatzaren 28an, 9 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Nerea Zallo
Maiatzaren 28an, 32 urte. Zorionak, potxola! Sorpresa!



ARRASATE
Maddi Trutxuelo
Maiatzaren 28an, urtebetzea. Zorionak, potxola! Zure lagunak.



ARRASATE
Ander Zeziaga
Maiatzaren 28an, 6 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Itziar Durañona
Maiatzaren 28an, 6 urte. Zorionak! Familiakoak.




ARAMAIO
Maider Aldai
Maiatzaren 30ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handibat! Aita eta ama.



GARAGARTZA
Bernardo Zuazubiskar
Maiatzaren 20an, 80 urte. Zorionak, *Rubio!* Peña Txerrihanka eta Leze Txikikoak.



ARRASATE
Ainhoa Garai
Maiatzaren 23an, 28 urte. Zorionak! Zure lagunak.



ARRASATE
Roman González
Maiatzaren 20an, urtebetzea. Zorionak! Beitia-Zelaitxo familiakoak.



ARRASATE
Ubane Madera
Maiatzaren 24an, urtebetzea. Zorionak! Lankideak.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **maiatzaren 25etik ekainaren 6ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.**



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku! Otalora lizentziaduna, 31.



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko maiatzaren 24a / 28. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Jai batzordea hasi da San Martin jaiak gertatzen

UBANE MADERA

Herriko Jai batzordea hasi da San Martin jaiak prestatzen. Azken hiru urteotan moduan, bospasei lagun ari dira horretan. Edozelan ere, aurrekontua dezente gutxitu diote.

Aste Santutik hona, gutxi gora-behera astean behin elkartzen da Aramaioko Jai batzordea herriko jaiak prestatzeko. Urtero moduan, Udalak talde hori sortzeko deia kaleratu zuen eta azken hiru urteotako talde berak eman dio baiezkua. Hortaz, azken hiru urteotako bospasei herritarrek ari dira lanean, eta dagoeneko buru-belarri, gainera.

Uztailaren 5ean hasi eta zortzian bukatuko dira aurten jaiak, eta iazko jai-egitaraua kontuan hartuta ari dira San Martinak antolatzen. Hori bai, aurten, iaz baino lan nekezagoa dute; izan ere, Udalak sei mila euro baino gehiago murriztu du jaietarako aurrekontua. Horrek esan gura du Jai batzordeak orain arte egin izan diren zenbait ekitaldi ezabatu egin beharko dituela. Hala ere, adierazi digu Aitziber Aginagalek, Jai batzordeko kideak. Aitziberrek esandakoaren arabera, adibidez, aurten ez da jaietako Kartel Lehiaketarik izango,



AITZIBER AGINAGALDE

Aurten zertxobait murriztu beharko dute jaietako egitaraua.

ez eta etxafuegorik botako ere: "Jendeak faltan igarriko du gauza bat baino gehiago, baina zerbait kendu beharra dugu".

Dena dela, horrekin batera, gaineratu digu jaietan gauero izango dela musika saioa, herriko trikitilariak eta bertsolariak ere izango dutela euren lekua eta umeendako jokoak eta bes-

telakoak ere izango direla. Txar-rangak egongo direla ere gaineratu digu, baita zapiak salgai ere.

Hala eta guztiz ere, jendeak ez duela jaiekin interes larregirik ipintzen ere kontatu digu Aitziberrek: "Urtetik urtera parte hartzea eskasagoa da, eta laguntza apur bat eskertuko genuke".



Jon Agirreren omenez

Jende dezente elkartu zen zapatuan Jon Agirre presoaren omenez egindako ekitaldian. Manifestazioa egin zuten lehenengo, eta gero, ekitaldi politikoa eta afaria izan zuten. Besteak beste, Manex Agirrek ongietorria eskaini zien hara gerturatutako guztiei. Bestalde, domekan, mendi irteerak izango dira Muru-gainera. 09:00etan irtengo dira, Aramaioko kiroldegitik.

HERRITARREN HITZA / Aran Ibabe • Langilea

Izarrak eta Izarrak

Txikitan erakutsi ziguten, zeruan, gauetz distira duten argi horiek izarrak zirela.

Denborarekin, beste izar klase bat ere bazegoela konturatu nintzen; telebistan, zinean edota aldizkarietan ikusten ditugunak. Adolozentea nintzela, barruraino sartu zitzaidan hauon argia, goikoak baino distiratsagoak zirelakoan. Itsutu ninduten, hain zuten argi indartsua! Zeruko izarrak legez, beste mundu batekoak zirela uste nuen. Urteekin, izar horiek gure antza zutela ohartu nintzen. Ez zirela beste mundukoak. Eta, asko eta asko gu baino txarragoak. Neure buruari esan nion horien distira

ez zela egiazkoa; argi indartsuegia ez ote zuten... Benetakoak ez diren gauzak legetxe, sartu besteko agudo urten zuten haien distira faltsuak.

Horrexegatik uste dut, izar horiei argia ematen dienak gu garela eta ez beste inor. Gehienek elektrizitatea behar dute funtzionatzeko eta, hor goikoek, guretzako daukate beren argia. Besteek berriz, danok dugun argia kentzeko gertu daude, eurak faltan ote dabiltzan edo... ez dakit.



"Benetako izarra denak barruan du argia"

Azken boladan, beste izar klase bat sortu delakoan nago: bi segundotan argiaz itsutu gura gaituzten horiek. Edozein gauza egitearen truke, telebistan agertu eta famatu izan gura dutenak. Hau lotsa! Beste espezie baten aurrean ote gaude? Zergatik danon

aurrean urten gura hori? Galtzen dutena, dignitate pertsonala, irabazten dutena baino askoz handiagoa da; eta, galtzen duten horrek argitzen du

norbera.

Benetako izarra denak barruan du argia, eta galanta gainera. Ez dugu telebistara jo beharrik horrelakoekin topo egiteko, gure inguruan egon legikez; gutariko bat ere igual. Horien argia sartzea gehiago kostatuko zaigu beharbada, baina ez du sekula urteten, gurekin daroagu.

Eta, izarrak direla eta ez direla... Gasteiz aldean behintzat, merezimendu osoz jada benetako izar bihurtu den bat eta, txoko honetan eskribitzen duen bat zoriondu gura dut; Zorionak Manex! Gozatu lortutakoaz eta bejondeizula!

LABUR

Zuberoa bisitatzeko txangoa ekainean

Zuberoari laguntzeko ekimekin segituz, ekainaren 15ean hara joateko bidaiatxoa antolatu dute. Helburua da hura hobeto ezagutzea. Horretarako, bidaiaria baino lehen, Aramaioko ordezkariaren bat Zuberoara joango da zubertarren laguntzarekin bidaiaria antolatzeko. Era berean, herriko jaietarako Zuberoako produkturen bat edo abeslariren bat ekartzeko ahalegina ere egingo dute. Joan gura duenak herriko tabernetako zerrendetan eman beharko du izena.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun-etxea (brandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirodegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuliako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

ZINEMA, AZKENA

Oraingo hau zinema emango duten azkeneko domeka izango da. Gero, ekainean ez da ezer izango eta uztailetik aurrera udako saioak hasiko dira. Edoze-lan ere, oraingo astean, *Pequeño Cazador* filma emango dute, betiko moduan, 17:00etan, herriko kultura etxean.

BIBLIOBUSA

Datorren barikuan, maiatzaren 31n, etorriko da Bibliobusa Aramaiora. Betiko moduan, 15:45etik 16:45era arte egongo da Ibarra; eta Oletan, 17:15etik 17:45era arte. Ekainaren 14an itzuliko da.

ARETO FUTBOLA, BUKATUTA

Aurtengo denboraldiko azkeneko partiduak jokatu zituzten Bañera taldekoek joan den asteburuan. Zoritzarrez, mutilek 6-3 galdu zuten Francisco de Vitoria taldearen kontra eta neskek 5-1, Menesianosen kontra. Kontuak kontu, euren entrenatzaileak pozik daude egindako lanarekin. Hortaz, datorren urtean berriro izango dute aukera.

DANTZA TALDEA, PIPAUNERA

Aramaioko dantza taldea Pipaunera joango da bihar, zapatua. Hemengo Dantzen Saioaren barruan, Txakolin dantza egingo dute aramaiorrek. 19:00etan hasiko dute eguna kalejira batekin eta 19:30ean izango dute dantza saioa herriko plazan. Aramaiorekin batera, Oiongo, Iekorako, Gasteizko eta Bastidako dantza taldeek ere egingo dute dantza. Gero, han afalduko dute eta erromeria izango dute.

GIZARTEA

Tellamendiko gurutzea berriro inauguratu zuteneko ospakizunerako

Tellamendiko gurutzea berriro inauguratu zuteneko urteurrenaren ospakizuna prestatzeko buru-belarri dabilta lanean Aramaion. Oraingo honetan, eta Udalaren eskutik, Pegatina Lehiaketa antolatuta dute.

Kontua da, 1977an egin zuten moduan, orain ere egun berezi horren oroitzapenerako pegatina atera gura dutela. Lehiaketan parte hartu gura duenak datorren ekainaren 21a baino lehen eraman beharko du egindako marrazkia edo marrazkiak Aramaioko Udalera. Izan ere, norberak gura duen lan guztiak aurkez ditzake lehiaketa horretan. Hori bai, gero, sari bakarra emango dute. Hain zuzen ere, lehiaketako irabazleak 150 euro jasoko ditu. Parte hartzaileak egilearen izena, helbidea eta telefonoa idatzi beharko ditu gutun-azal baten barruan. Baita goitizena ere; lana identifikatzeko balioko duen goitizena, hain zuzen ere.



BOTEPRONTOAN/ Timoti Etxebarria · Artzaina

“Lehen bai, baina gaur egun ezin da ardiak zaintzearekin bakarrik bizi”

Timoti Etxebarria dugu oraingoan gure berba-laguna. Elorrioren bizi da, eta duela 19 urtetik hona egunero-egunero etortzen da Aramaiora ardiak zaintzera. Batzuetan autotopetan etortzen ei da eta bestetan Besaidetik bueltan oinez. Ez da ohikoa horrelakorik topatzea.

Ardiak zaintzea duzu lanbide. Zelan hasi zinen?

Orain dela 19 urte hasi nintzen. Anaia basoan ekin zen beharrene eta beste anaia gaixorik zegoen; esan zuten ardiak kendu behar zituztela eta nik esan nuen ezetz, nik zainduko nituela. Gura bazuten, ganadua kentzeko, ni etorriko nintzela egunero ardiak zaintzera.

Ardiak gustatzen zaizkizu ala?

Askok. Oso umilak dira ardiak, oso maitekorak. Ganadua, berriz, ez da horrelakoa. Esate baterako, ardiak herren daudenean asko sufritzen dut.

Non hasi zinen artzain?

Hemen, Aramaion. Anaiak laguntzen dit, baina normalean, sasoi hau neuk bakarrik egiten dut. 40 bat ardirekin hasi ginen.

Orain, zure artaldea duzu. Non? Zenbat ardirekin?

Orain, *Solaia* baserrian egoten dira, maiatzera arte; eta maiatzaren bukaeran gorantz



“Ardiak oso umilak dira, oso maitekorak. Ganadua ez da horrelakoa”

joango dira, Tellamendi ingurura. Ehun eta piku ardi ditugu orain.

Txakurren bat ere baduzu...

Bi, *Nere* eta *Beltz*. Oso zintzoak dira. Lehen, txapelketetan ibiltzen ginen eta orain, berriro hasteko nago. Lehengo txakurra hil egin zen eta oraingo hau oso gaztea da, baina ekin egin behar diot berriro. Askok gustatzen zait hori guzti hori.

Ardiei esker bizi zara?

Ez. Lehen bai, baina orain nire senarrak beharra egiten du. Orain ezin da beronekin bakarrik bizi. Artilea lehen asko ordaintzen zuten, baina artilea mozteak beharleku asko dauka eta hamar pezeta bakarrik ordaintzen dizute; orduan, ezin da bizi horrekin bakarrik.

Zuek esnea saltzen duzue?

Bai, eta bildotsak ere bai.

Eta zelako esnea ematen dute

zuen ardiek?

Oso ona. (Barreak)

Lanbide gogorra da zurea?

Neguan bai, oso gogorra da. Ordu asko dira, eta gero, ardiak bustitzen badira, azpigarriak ipintzeak-eta beharleku asko du, herren daudenean...

Neguan bustita ibiltzen badira, askotan egoten dira herren.**Otsoen beldurrik ez duzu?**

Ez; azeriena apur bat bai. Txikiak goian jaiotzen badira, deskuidatzen bazara jan egiten dituzte.

Non daude Aramaioko larrerik goxoenak?

Tellamendi aldean. Eguzkiak gogor jotzen du han, eta, janari gutxiago egon arren, oso goxoa da. Belar sikua gustatzen zaie, belar busti makala ez da izaten ona. Belar sikua da onena. Ematen duten esnean ere igartzen zaie.

Jendeak igartzen du?

Bai. Beste esnea urdinagoa da, meheagoa, ez du horrenbesteko zaporerik...

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Galtzen. Gazteek gura dute, baina laguntza gutxi dago. Ezin daiteke berorrekin bakarrik bizi. Oso zaila da.

Ardiak klonatzeko beharrik izango dela uste duzu?

Nik uste dut baietz. (Hemen ez du barrerik egin)

HERRIKO AUZOETAN

AZKOAGA II

Azkoagako baserriekin segituko dugu bigarren kapituluari:

— *Iturralde*, Latzako jaun Pedro Jose Lasagak eraikitakoa, XIX. mendearen erdialdean.

— *Arrupe* (bi etxebizitza), 1843. urtean eraiki zuen Lasaga familiak. Gastu gehienak Azkoagako parroko Baltasar de Lasagak ordaindu zituen.

— *Gatxekoarrea*, Latzako jaun Pedro Pablo Lasagak eraiki zuen 1870. urtean.

— *Ausibar*, 1869. urtean eraiki zuen Luis de Ferranek, Ibarako benefiziodunak.

— *Induspe*, Domingo de Iñurriak eraikitakoa bere jabetzako lurretan 1772an, bigarren etxebizitza izateko. Urtebete baino lehen alokatu zuen. Eta, mendea baino lehen bota egin zuten, 1860an, jausteko arriskuan zegoen-eta. Bere lekuan gaur egungo biak eraiki zituzten: *Induspe Goiko* eta *Induspe Beko* eta lurrak erditu zituzten. *Induspe Beko* eraiki du bigarren baserria.

— *Alzaga Azpikoa 2.* (*Altzazpi*), Juan León Beitiak eraiki zuen 1869. urtean. Gaur egun, *Enrikeña* izena ematen zaio. Han bizi zen Juan León, eta bigarren etxebizitza izateko eraiki zuen.

JM Elejalde Plazaola

ERRETRATUZAHARRA

Mondra futbol taldea animatzera, Lizarrara

Gaur egun ohikoa zaigu asteburuetan gustuko dugun futbol taldea ikustera joatea; herrian edo herritik kanpo jokatu, berdin da. Baina, lehen, ez zen horren ohikoa, taldeak kanpoan jokatzen bazuen, behintzat. Halaxe kontatu digute argazkiko bi lagunek. Gure berriemaileen esanetan, (barrez diote, gainera) ausartak ziren orduan, menturazaleak, eta horrexegatik, Mondra futbol taldearen autobusera sartu eta Lizarrarako bidea hartu zuten, jakina, Mondra taldea animatzeko asmoarekin. 1953. urteko apirila zen.

Gure lagunek aitortu digutenez, Mondrak jokatu zuen partiduarekin ez dira asko gogoratzen; animatu eta animatu ibili zirela, hori bai.

Baita, eurak moduan, jende mordoan joan zela egun hartan Lizarrara eta sekulako bazkaria egin zutela guztiek batera. Azken batean, "Lizarran txango egun bat pasatu genuen egun hartan".

Honakoak dira argazkian agertzen direnak, tente ezkerretik hasita: Miren Azkoaga, Beni (Aizkorakoa), Aintzane Azkoaga, Tere Arana, Arantza Uribe eta Pili Garmendia.

Makurtuta, berriz, ezkerrean dagoen emakumea Maite Mendikute da, erdiko gizona Juan Jose Zeziaga eta eskumakoa, berriz, Mari Carmen Larzabal.

Argazkia: Mari Carmen Larzabal
Informazioa: Mari Carmen Larzabal eta Miren Azkoaga
Urtea: 1953



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Udalako Ozeta baserria

Ozeta baserriak hirurehun urte pasatxo izango ditu. Udalako sakristau eta auzo-alkate izandako Bixente Zabarte geratu zen baserrian. Oletako Leocadia Beitiarekin ezkondu, eta bederatzi seme-alaba izan zituzten. Orduan, Antonio Zabarte geratu zen Udalako baserrian. Antonio ere ezkondu egin zen, eta baserria hutsik geratu zen. Gaur egun, asteburuetan joaten dira.



≈ 1970

Baserriaren atzeko aldean sekulako kobazuloa ei dago. Goitik beherakoa da eta inork ez daki non amaitzen den.



2002

Behin, kobazulora koloredun hautsak bota ei zituzten, eta Garagartzan azaldu ei ziren. Hildako animaliak ere kobara botatzen zituzten.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



García Ripa
ERREFORMAX S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta auñkiak



Citroën C3

Nabarmenki berria



Azkenean ere, hemen dago.
Nabarmenki apurtzailea den autoa heldu da.
Barrualdea eta kanpoaldea, zu liluratzeko pentsatuak.
Nabarmenki berritzailea: aparkatzeko laguntza elektronikoa,
direkzio lagundu elektronikoa, aire-girogailu digitala...
Nabarmenki gaztea: irrati CD ekipoa, 6 bozgorailurekin.
Nabarmenki praktikoa: maletategi modulagarria (Moduboard)

Nabarmenki oldartsua: 110 ZPrainoko motorrak.
Nabarmenki segurua: ABS balaztatze banatzaile elektronikoa
arekin eta urgentziatzko balaztatzeari laguntza, ESP (egon-
kortasunaren kontrol dinamikoa) eta 6 aire-zaku.
Eta pribilegiatu sentitu gura baduzu, ikus ezazu mundua
bere sabai panoramikoaren bitartez.
CITROËN C3 berria. Nabarmenki ezberdina.

 **CITROËN C3**

9.430 €-tik aurrera

www.citroen.es

Ekipamendua bertsioen arabera. Salneurria gomendatua C3 1.1i modeloerendako (BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, merkaturatze-promozioa eta gasolina autoendako Prever Plana barne). Hori guztia aplikagarria izango da operazioan parte hartzen duten salmenta lekuetan. Baliagarria hilabete amaiera arte stock-ean dauden autoetan, penintsulan eta Balear Uharteetan. Citroën Informazioa: 902 44 55 66

CITROËN - EK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK

Etor zaitez:

CHAPIME TAILERRAK SCL Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala

Araba etorbidea z/g Tel.: 943 79 45 22. Arrasate.


CITROËN



Pauso bat aurretik

Erakusketa:

Lagarre pabilioia, z/g.

Gipuzkoa etorbidea

Tel.: 943 79 01 92

e-posta: berangoaltzaria@jet.es

ARRASATE

Berango
ALTZARIAK



MUNDUTARRAKARETXABALETAN

PEDRO AMARAL


34 URTE / LANGILEA / PORTUGAL

“Gurasoak Portugalen ditud, baina ni hemen hazi eta hezitakoa naiz”

AMAGOIA LASAGABASTER

Zazpi urterekin utzi zuen Pedro Amaralek jaioterria, Portugalgo Visev hiria. Edozelan ere, oraindik ere berba egiteko moduan beste herrialde batetik etorritakoa dela nabari zaio Pedro Amarali.

Pedro Amaral mutiko koskorra zela etorri zen Euskal Herrira. Hasiera baten, Arrasaten bizi izan zen. Baina gero, anaia Aretxabaletan zuela eta, gure herrira etorri zen. Ordutik hona euri asko egin du eta gaur egun Pedrok aretxabaletartzat du bere burua: “Portugalen gurasoak ditud, baina ni txikitatik hemen nago, ibar honetan hazi eta hezitakoa naiz”. Noizean behin bueltatzen da Visev-era familia ikustera; edozelan ere, Aretxabaletan gusturago dagoela esan digu. “Ez dut jaioterriaren faltarik sumatzen, herri txiki honetan oso gustura bizi naiz”;



etorkizunean ere, erretiratzen naizenean ez dut uste Portugalera bueltako naizenik bizi izatera”. Are gehiago, Pedrok hemengo ohitura guztiak maitatu ditu, eta zintzo-zintzo jarraitzen ditu tabernaz taberna tra-

“Erretiratzen naizenean ez naiz Portugalera bueltatuko bizi izatera”

goak hartzen ibiltzeko edo mendira joateko euskaldunok dugun ohitura. Janariari dago-kionez, ordea, arraroa bada ere, Portugalgo gurago du. “Visev-era joaten naizenean irrikari egoten naiz hango erara egiten duten bakailaoa eta okela jateko. Hemen sukalde hona dago, baina bi plater horiek, behintzat, han jatea gustatzen zait”.

HURRETIK



Larraitz Arando

Loramendiko EEko langillie

Ondo baiño hobeto ezaguketan daue herriko dendarixek Larraitz. Larraitzek, Loramendi euskara elkartiaren bittartez, dendarixek euskeraz egin daixien animetan dittu.

Zela hasi zitzen Loramendin lanien?
Oin dala hillebete batzuk Loramendin lanpostu bat euela enterau nitzen. Lau orduko lana edarto etorten jaten, eta ez neuen bi bider pentsau. Elkarrizketa bat egin, eta hementxe nago.

Zein da zure lana?
Ni, gehixenbat, Merkataritza Saillaz arduraketan naz. Gerora, beste proiektu batzuk egitten be hasiko naz, baiñe ondiokan ezin dot ezer be aurreratu.

Eta ze moduz herriko dendarixekin?
Ondo, jatorrak die. Bezeruek eta merkatarixek euskeraz egin daixien lan egitten dot, eta oingoz harreman onak dittut.

Ikastaro bat be gertatu dozue, ezta?
Bai, astelehenien ekin zien herriko zazpi dendari eskaparatiek zela apaindu biher dien ikasten.

Euskeraren Eguna laster izengo da, zerbait aurreratu zeike?
Urtero moduen, bazkarixe, bertseuek eta beste ekitaldi batzuk be egingo die. Nire sailletik, barriz, merkatarixendako erakusketa txiki bat gertaketan gabitz.

Zerk jarten zau pozik?
Ingurukuek pozik ikustiek.

Eta triste?
Kontrakuek, ingurukoren bat triste ikustiek.

Pelikula, musika talde eta liburu gustoko bana?
Memento pelikulie, Incubus eta Serial Number musika taldiek eta Alkimista liburua.

Afiziñorik?
Mendire fatie, bizikletan ibiltie... Baiñe, batez be, sofan etzindde egotie!

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Jesusa Urrutia

Europar zehar / 1999ko abuztuaren

Azterrirra joateko bidaiak gazteendako bakarrik ez direla erakutsi digu Jesusa Urrutiak. Jesusak beste berrogei bat lagunekin batera egin zuen Europar zehar bidaiak, 1999ko abuztuaren. “Herriko parrokiak antolatutako bidaiak izan zen. Urtero gertatzen dituzte Europar zehar bidaiak egiteko irteerak, eta ni gehienetara joaten naiz. Gainera, guretako, nagusionondako, egokiak diren bidaiak izan ohi dira horiek”.

Zazpi mila kilometro baino gehiagoko bidaiak egin zuen Jesusak. Euskal Herritik irten eta Europako hainbat herrialde ikusi eta gero Norvegiara heltzea zen helburua. “Norvegiako hiriburura, Oslora, heldu aurretik, Parisen, Amsterdamen eta Hanburgon izan ginin. Guztietan ere, erakinak eta leku turistikoak bisitatu genituen. Baina niri Norvegiako parajeak gustatu zitzaizkidan gehien, hango baso zabalak, Fiordoak, herrixkak... eta batez ere, hiri garbi eta txukunak”. Bestalde, Jesusaren esanetan, Norvegiako hiriak gauzez oso politak ei dira. Kontua da urteko hilabete gehientsuenak gauzez bizi dituztela, eta, ondorioz, oso ondo gertatzen dituztela kaleetako argiak, eta abar. Horrez gain, oso garbiak ere badira Norvegiar; kaleetan garbitasuna dela nagusi adierazi zigun gure bidaiariak.

Hurrengo geldiuinetxoak, berriz, Kopenhagen egin zuten, eta hango bisitaldi garrantzitsuena Tivoli izeneko jolasparke erraldoira egin zuten. Hurrengo egunean, osterara, autobusera igo aurretik, hango udaletxea eta bestelako eraikin eta eliza batzuk ikusteko aprobetxatu zuten. Eta azkenik, abuztuaren 14an, Andra Mari bezperan, iritsi ziren Aretxabaletera Jesusa eta gainerako bidaiakideak; nekatuta, baina aldi berean, pozik, egindako bidaiak zoragarriagatik.

A.L.




Jesusak beste berrogei bat lagunekin egin zuen bidaiak.

“Herriko parrokiak antolatutako bidaiak egin nuen”


“Niri, Norvegiako parajeak gustatu zitzaizkidan”

Errekabarren merkataritza etxea.


Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.



MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85




IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



MIREIA
ARRANDEGIA
943 79 31 59



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 17a / 80. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Kalean dago ume txikiendako liburu gomendagarrienen gida


AINTZANE GARDOKI

Haur Txikiendako Liburu-gida HUHEZIKO Haur Liburu Mintegiak kaleratu duen hirugarrena da. 1995etik 1999ra euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu dituzten liburu onenak jasotzen dira gidan. Guztira, 208 liburu gomendagarri jaso dituzte adituek gida horretan.

Duela urte batzuk sortu zuten, orduko Irakasle Eskolan, Haur Liburu Mintegia. "10-12 urte dela ekin genion lanari, eta hogeita hamarren bat lagun pasatu dira geroztik mintegitik; gehienak, irakasleak eta herri liburutegitako liburuzainak. Produkzioa zein zen jakiteko eta interesatuei aukeraketa eta irakurketa errazteko helburuarekin hasi ginen lanean," esan digu HUHEZIKO irakasle Nerea Altzolak.

GUZTIRA, 208 LIBURU

1995 eta 1999 urte artean argitaratutako 208 liburu jaso dituzte liburu-gidan. Gehienak, 141, gaztelaniaz idatzitakoak dira eta beste 67ak, euskaraz. Irakurketa errazte aldera, lau ataletan sailkatu dituzte liburuok gidaren



Elena Odriozolak egin du liburu-gidaren azala

arduradunek: irudi liburuak; objektu liburuak; ipuin eta alegia klasikoak; eta poemak, kantak eta igarkizunak. Atal bakoitzean "liburu gomendagarriak"

eta "oso liburu gomendagarriak bereiztu dituzte egileek. Liburu bakoitzaren sinopsi txiki eta irizki labur bana ere jaso dituzte. Ume txikiak irakurtzen zaletze-

ko gomendioak ere agertzen dira. Gida doan da eta eskuratu gura duenak 943 71 41 57 telefonora deitu edo liburutegi@huhezi.edu helbidera idatzi beharko du.

HERRITARREN HITZA / Dorleta Kortazar

Salam

Lurralde berri bat ezagutzeak dakarren sentimendu kontrajarriak ahaztu ezinik nabil oraindik, Sahara aldean bizitakoak hain zuzen ere. Zuzenago esateko, Sahara aldean baino Tindouf-eko errefuxiatu kanpamenduetan, bertan bizi baitira milaka saharaiar azken 27 urtetik hona, algeriar lurraldean apopilo. Desertuaren erdian, egunak joan eta egunak etorri, nazioarteko sostengua eta arnasa besterik ez dute jasotzen. Duintasunez eta esperantzaz, beraien etxera itzuliko direnaren esperantzaz bizi dira. Egun hori heldu bitartean,

alaitasuna eta samurtasuna lagun harturik, irtenbide posible bakarra duen borroka daramate aurrera.

Emakume saharaiarrek dira bien bitartean benetako iraultza egiten ari direnak. Beraien aita, seme eta senarrek bederratziz hilabete egiten dituzte frontean, eta bitartean herriaz arduratzen direnak bertako emakumeak dira. Beren herriaren askapenaren alde ari dira lanean,



"Frente Polisarioaren babes osoa dute"

jakinik emakume bezala beraien eskubideen alde borrokatzea, herri saharaiarren eskubideen alde borrokatzea dela. Eta Frente Polisarioaren babes osoa dute bide zail honetan.

Gertutik ikusteko aukera izan dugu zelan bizi diren bertako emakumeak

eta zein arazo eta erronka dituzten beraien eguneroko bizitzari aurre egiteko. Hainbat gai jorratzen hasi dira: dibor-

tzioa, ama ezkongabeen eskubideak, abortatzeko eskubidea, dotearen deuseztatzea ezkondu ahal izateko, etxeko lanen banaketa, seme-alaben ardura, politika postuetan aritzeko aukera gehiago...

Eta bertan nengoela konturatu nintzen gure gizarte eta arazoak ez direla hain ezberdinak. Emakume bezala eta herri bezala lortu nahi dena azken finean gauza bera baita: gure/herriaren ASKATASUNA.

Salam emakume saharaiarrei, palestinarrei... eta besarkada bero bat munduko emakume iraultzaileei.

LABUR

Zaragozara bidaia bertan behera utzidu Amuskak

Zaragoza eta inguruak ikus teko aukerari herriko 15 emakumek bakarrik eman diote baietza. Horregatik, Amuskak egitekoa zuten bidaia bertan behera uztea erabaki dute. "Aurreko aldietan 30-35 emakume joan gara bidaiari. Oraingo kopurua txiki egia da eta bidaia asko garestitzen digu. Horregatik hartu dugu erabaki hori", azaldu digu Marilu Arandok, Amuskako presidentea. Arrakasta ezaren arrazoiak aztertuko ditu emakume elkarteak.

Eskoriatzako VI. Ferixie antolatzen, buru-belarri

Badira bizpahiru hilabete Ferixien VI. ekitaldia prestatzeko lanak hasi zituztela Jose Arana Ikastolan. Ikastolako gurasoak, irakasleak, eta lehengo guraso eta ikasleak ari dira parte hartzen batzarretan eta antolatze lanetan. VI. Ferixie ekaineko lehengo zapatuan egingo dute ohiturari jarraituz. Arrakasta handia izan ohi du ferix horrek, eta aurten ere 100 postu inguru erakusgai izateko espero dute ferixako antolatzaileek.

Elizateetan auzo elkarteak osatu guran dabilta

Gabonen aurretik hasi ziren elizateetako auzo-alkateak auzoetako biztanleak elkartetan batzeko asmoarekin. Gestio lanetan hasi ziren, eta oraindik auzo-elkarteak osatzea ez badute lortu ere, datuzen 15 egunotan elkartea jurririk dikoki egin egongo dela esan digute auzo-alkateak. Oraingo arte ez dute izaera juridikorik izan auzoetako bizilagunak eta dirulaguntzak jasotzeko adibidez, erraztasun handiagoak izango dituzte auzo elkarteetan osatuta badaude

EUSKARA

San Pedro jaietako Esaldi Lehiaketa datorren astean jarriko dute abian

MIRARI ALTUBE

Udaleko Euskara Sailak Esaldi Lehiaketa antolatu du San Pedro jaietarako. Hirugarren aldia izango du, eta, aurreko urteetako arrakasta ikusita, aurten ere parte hartze handia espero dute antolatzaileek.

Aireratu gure jaiak!! aldarrikatuz, Esaldi Lehiaketa antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak San Pedro jaietara begira. Hirugarren aldia beteko du lehiaketak, eta eskoriatzarrak animatuko direlakoan daude antolatzaileak.

ESALDI DOTOREAK

2000. urteko San Pedro jaietan egin zuten lehenengo aldiz Esaldi Lehiaketan parte hartzeko deialdia. Jaietan ere euskara bultzatu gura zuen Udaleko Euskara Zerbitzuak, eta jaiak, euskara eta gazteak lotuko zituen esaldiak eskatu zituen. Lehiaketak erantzun ona izan zuen, eta hurrengo urtean ere antolatzea animatu ziren: "Oso esaldi dotoreak agertu ziren lehenengo urtean, nahiz eta euskararekin zuzenean zerikusirik ez izan. Hortaz, bigarrenako jaiekin lotutako esaldiak baino ez genituen eskatu", dio Mari Carmen Arrieta Udaleko Euskara teknikariak. Aurkeztutako gehienak, gainera, Eskoriatzako euskalkian idatzitakoak izan ohi dira.



AINZANE GARDOKI

Hamahiru urtetik gorako eskoriatzarrez osatutako taldeek hartuko dute parte Esaldi Lehiaketan.

Parte hartzaileei, eskoriatzar izateaz gain, taldeka parte hartzea ere eskatzen diete: "Jaietako esaldiak izango direnez, talde giroan hobeto asmatzen direla uste dugu eta, era berean, taldean euskaraz berba egitera bultzatzen ditugu", dio Mari Carmenek.

MAIATZAREN 25ETIK AURRERA

Hamahiru urtetik gorako edozein eskoriatzarrek har dezake

parte Esaldi Lehiaketan; hori bai, hiru eta bost lagun bitarteko taldeak osatuta. Gura beste esaldi aurkeztu ahal dira udaletxean eta kultura etxean jarriko dituzten postontzietan, eta horretarako astebete egongo da, maiatzaren 25etik ekainaren 2ra.

Irabazlearen berri ekainaren 11n emango dute, 20:00etan, Teleskon. San Pedro jaietan, bestalde, esaldia idatzita izango duen kar-

tela jarriko dute herriko plazan, eta irabazleei afaria ordainduko diete antolatzaileek Eskoriatzako jatetxe baten. Irabazleaz gain, beste esaldi batzuk ere aukeratuko ditu Udaleko Euskara batzordeak. Horiekin pegatinak aterako dituzte, eta 40 euroko saria ere emango diete talde bakoitzari.

Hortaz, hasi buruari eragiten eta esaldi dotore-dotoreak asmatu datorren asterako.

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ESKORIATZA**
- Udaletxea 943 71 44 07
 - Udal bulegoak 943 71 45 32
 - Udaltzaingoa 943 71 44 07
 - Euskaltegia 943 79 21 68
 - Kultura etxea 943 71 46 88
 - Gizarte laguntzailea 943 71 31 36
 - Kirol etxea 943 71 53 28
 - Liburutegia 943 71 31 35
 - Luis Eceiza 943 71 53 56
 - Jose Arana Almen Ikastola 943 71 44 86
 - Almen 943 71 49 07
 - Museo Eskola 943 71 54 53
 - Axtroki 943 71 40 77
 - HUHEZI 943 71 41 57
 - Osakidetzak 943 71 44 52
 - Telesko 943 71 49 17
 - Taxiak 943 71 40 59

- BESTELAKOAK**
- Eskualde ospitalea (Arrasate) 943 00 53 00
 - Gurutze Gorria (Bergara) 943 76 55 76
 - Ertzaintza (Arrasate) 943 79 71 99
 - Suhiltzaileak (Oñati) 943 79 28 00
 - Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15
 - Renfe (Gasteiz) 945 23 20 30
 - PESA (Arrasate) 902 10 12 10
 - Larrialdiak (Arrasate) 943 77 10 43
 - SOS Deiak 112

OHARRAK

UDALEKU IREKIAK ETA GAZTE KANTOI

4tik 12 urte bitarteko umeentzako uztailearen 4tik 24ra udaleku irekiak egingo dira. 13 eta 16 urteko gaztetxoentzat, berriz, uztailearen 8tik 19ra Gazte-kantoi izango da. Izena eman nahi duenak Kultur Etxera jo beharko du datorren maiatzaren 29a baino lehen.

UMEEN DANBORRADA EGIN AHAL IZATEKO LAGUNTZA ESKE

Danborrada egiteko herritarren laguntza behar da. Maiatzaren 21ean, Kultur Etxean, 18:00etan bilera egingo da gaia aztertzeko.

AXTROKIRENAGENDA

TXUMA MURUGARRENEN KANTALDIA

Estatuan hainbat kontzertu eskaini aurretik, gaur, barikua, 22:30ean, eta Jose Arana ikastolan Txuma Murugarrenek kantaldia eskainiko du.

LABUR

Saskibaloiko senior mailako taldeak hirugarren postuan bukatu du denboraldia

Dagoeneko bukatu du denboraldia senior mailako saskibaloiko taldeak. Hamasei talderen artean hirugarren postuan gelditu da; hortaz, ez da harritzekoa pozik egotea eskoriatzarrak. Beste bi taldeek, ostera, ez dute oraindik bukatu. Hona, aurreko asteko emaitzak: juniorretan Atlético

Bera Berak 50 Eskoriatzak 43; eta kadeteetan, Antiguoko Luberrik 46 Eskoriatzak 31. Zapatuan, etxean jokatu dute biek, 16:00etan.

Areto futbolari dagokionez, Ohorezko taldeak 2-1 irabazi zion Atlético Sta. Mariari, eta lehenengo mailakoek 2-4 galdu zuten Gingangoloren aurka.

Telebistako kateetan aldaketak egin dituzte, seinalearen kalitatea hobetzeko asmoarekin

Teleskok, Eskoriatzako telebistak, telebista seinalearen kalitatea hobetzeko asmoarekin hainbat aldaketa egin ditu sarean. Telebista kateak sintonizatze kanalak aldatu egin dituzte, eta oraingo astetik aurrera beste kanal batzuetan ikusiko dira. Hona hemen aldaketak:

KATEA	Kanal Zaharra	K. berria
TVE1	8	22
TVE2	6	23
ETB1	10	24
ETB2	12	25
Canal Plus	21	26
Antena 3	27	27
Tele 5	23	28
Goiena Telebista	29	29
Telesko	25	30

Villar
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure
Zerbitzura

OTZETA
TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

Burgosera egindako bidaiarekin pozik itzuli dira herriko emakumeak

AINTZANE GARDOKI

Agindutakoa bete zuen Gatzagako emakume koadrila batek; asteburua Burgosen igarota itzuli dira herrira. Pozik itzuli dira, eta datorren urterako planak eginda, gainera.

Joan den barikuan, arratsaldeko laurak jota, hartu zuten Burgosera eramango zituen autobusa herriko 15 emakumek. "Lehenengo egunean, Burgos hiriburura iritsi, hotelean ostatu hartu eta katedrala eta alde zaharra ikusi genituen. Ezustea hartu nuen. Askok gusfatu zitzaizkidan Burgos, oso leku polita iruditu zait", esan digu Maritxu Plazaolak. Jaione Vitoria ere pozik azaldu da aurreko egindako bidaiarekin: "Hasieran, Burgos ez zitzaizkidan oso erakargarria iruditu, baina oso gustura ibili gara." Hotela ere kategoria handikoa izan dute emakumeek aurreko: "Urtetik urtera aurrerapauso galantak egingen ditugu emakumeek. Hotela, ikusgarria! Eta heldu bezain azkar mailetak jasotzeko bi gizon gure zain... Geure burua gero eta hobeto zaintzen ikasten ari gara, bai horixe!", esan digu izenik eman gura ez duen beste gatzagar batek, eta gaineratu du: "Autobus gidariak -emakumea hura ere- esaten zigun bidaiatzeko Gatzagako emakumeak baino hoberik ez dagoela inguruetan".

Zapatuan, Burgostik gertu dagoen La Cartuja monasterioa ikusi zuten lehenengo, gero,

Monasterio de las Huelgas, eta Cobarubias herria ikusi ondoren, Santo Domingo de Silosko Monasterioa bisitatu zuten. "Hotz egin zuen zapatuan, baina oso egun polita pasatu genuen. Arratsalderako hiriburura itzuli ginen. Denbora librea izan genuen bakoitzak gura zuena egiteko: erosketak, bisitaldiak, paseoak... Domekan, berriz, Tobalina iba-

rreko herri batzuk ikusi genituen: Oña, oso herri polita, Poza de la Sal eta Medina de Pomar; Medina de Pomar herria bazkaldu eta arratsaldea Frias-en pasatu genuen. Domekan, primerako eguraldia izan genuen", adierazi digu Jaione Vitoriak.

Oso balorazio ona egin du, orokorrean, Burgosen izandako emakume taldeak: "Iaz Londre-

sera egindako bidaia oso polita eta aberatsa izan zen, baina oso nekagarria izan zela ere ezin ukatu. Gurekin 80 urtetik gora daukaten emakumeak joaten dira bidaiari, horrela egin dute eta bidaiatzen hasi ginenetik hona, duela 15 bat urtetik hona. Eta hori da helburua, herriko emakumeek, gazteago zein nagusiago, elkarrekin egun batzuk igarotzea. Aurtengo

bidaia ez da hain nekagarria izan, Burgos bertan dago, eta lasai, oso lasai ibili gara guztiok", esan digu Jaione. Datorren urteko bidairako leku izen batzuk entzun omen ziren Burgosen. Oraindik denbora asko gelditzen denez, "ikusiko da, baina garrantzitsuena gogoia izatea da, eta hori ez zaigu falta!" esan digu Maritxu Plazaolak.



Musakolan batutako motoak Gatzagan

Aurreko asteburuan Musakola zuten jomuga motozale askok eta askok. Berrehunetik gora elkartu ziren joan den zapatuan eta domekan Arruena zelaian egin zuten San Isidroko Motoen XII. Kontzentrazioan.

Guzti baten gainean heldu zen Sevillatik motozale amorratu bat, beste batek, hain urrutitik etorri ez bazen ere, Zaragozatik Musakolaraino etortzeko sei ordu eman zituen bere Scooter berriarekin. Zapatuan, lagun berriak egin eta zaharrek kontu kontari ibilita, domekan, motoak hartu eta Gatzagara egin zuten bisita motozale askok. Argazkia, horren lekuko./ A.G.

ESKUZ

LARRUGINTZA

Askotariko larrugintza lanak
Mandatu eta lan bereziak

Pilar kalea 9 LEINTZ GATZAGA 943 71 41 54

Santa Ana

GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORIATZA
Tel. 943 71 52 36

NAIRA

Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Ze barri?

Izan zaitez zeu
ere berriemaile!

Zure taldearen,
auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa
emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

Charter

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala 3
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00



MIRENTXU

TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

- Aitzorrotz** elektronika
- Alboka** gazte moda
- Angelines** autozerbitzua
- Arexabaleta** iturgintza
- Asensio** jantzi denda
- Begiondo** optika
- Errasti** kioskoa
- Errekabarren** fruta denda
- Etxabe** harategia
- Farma bizi** parafarmazia
- Gemes** edertze aretoa
- Gertu** janari prestatuak
- Haurrak** umeen moda
- Herrasti** akeita etxea
- Ibarra** estankoa
- Iber** loteria
- Imanol** janari denda
- Iriarte** umeen denda
- Irudi** ileapaindegia
- Jauregi** okindegia
- Jon** harategia
- Josu** harategia
- L-10** ileapaindegia
- Larrad** ileapaindegia
- Lasai** masajek
- Leibar** arraindegia
- Leintz** drogeria
- Leniz** liburu denda
- Mari Karmen** oinetakoak
- Maritxu** mertzeria
- Martin** erlojudenda
- Miren Zuriñe** bitxitegia
- Nerian** loradenda
- Txilarra** dietetika
- Xume** oihal denda
- Zainduz** osasuna/fitnessa
- Zare** artegintza
- Zubia** oinetakoak



UDABERRIKO ZOZKETA!

150 EUROKO SARI BAT ETA 60KO ZORTZI SARI!

Aretxartek bedetatzi erosketa-txartel zozketatuko ditu gurean erosketak egiten dituztenen artean.
Zozketa ekainaren 4an egingo dugu! Hartu parte!



EUROKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
AGENTSIA MUNDUAREN ERKATEA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

www.forumsport.com



- | | | |
|----------------|--------------------|------------|
| Rossignol | Ternua | |
| Atomic | Mountain Hard Wear | |
| Fischer | Millet | |
| Nordica | Salewa | |
| Lange | Solo Climb | Astore |
| Head | Tuckland | Adidas |
| Salomon | Salomon | Asics |
| Dynastar | Peltz | Mizuno |
| Skitrab | Boreal | Reebok |
| Lowa | Asolo | Fila |
| Scarpa | Ferrino | Polar |
| K2 | Vaude | Umbro |
| Nitro | Garmin | Diadora |
| O.Sin | Magellan | Joma |
| Oxigen | Neak Peak | Lotto |
| Columbia | Coleman | Speedo |
| The North Face | Grivel | Arena |
| Colmar | Lorpen | TYR |
| ACG | Sportiva | Stress Out |
| Ziener | | BH |
| Level | | Tunturi |
| Dakine | | Oxbow |
| Briko | | Sun Valley |
| Cébé | | Think Pink |
| Carrera | | Jansport |
| Oakley | | Gotcha... |
| Eassun | | |

Garibai Etorbidea 2-6
20500 Arrasate. Gipuzkoa
Tef. 943 77 30 72



KIROLA ZEURE ESKURA



Laster, erakusketa zabalduko dugu berriro.
Bien bitartean, lantokian izango gaituzue
12:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.
Telefonoa: 670 99 72 74.



BEIRALAN



KRISTALDEGIA

*Zure kristaldegia,
konfiantzazkoa.*

Herriko plaza 8 ARETXABALETA

DEN-DENA
NEURRIRA
ETA
ETXERA ERAMATEKO
ZERBITZUAREKIN.

HEMENDIK AURRERA
BAITA
ENMARKAZIOAK
ERE!